

Gregorio Arrue

**SANTA JENOBEAREN
BIZITZA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Santa Jenobebaren Bizitza*, Kristobal Schmid /
Gregorio Arrue (Lino Akesoloren edizioa). Euskal
Editoreen Elkarte, 1987

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00333.htm>

Irakurleari

Zuei, ama onak, batez ere zuei, gauza garbi ta eder guziak biotzean mella eragiten dizuten, eta lurreko gauzik ederrentzat gure erlijio santu adoragarria daukazuten ama biotz-samurrai, eta sentimentu eder oezaz bete, irazaki eta azi nai zinduzkeen zuen seme-alabatxoai eskañtzen dizuet liburu au.

Eztago gauza maitagarriagorik bere seme-alabak bere inguruan artu, eta lurrean daukagun gauzik garbi eta ederrena, au da, gure erlijio santua, oiei gozotoro erakustera al guziaz saiatzen dan Ama baten amore biguña baño.

Amore oni nolabait eranzuteko, ipiñi dizuet liburutxo au, zuei lagun degizuten zeron aurrai erakusteko lanbide ederraren karga astuna zerbait arintzeko gai eta bidetzat. Onetarako saiatu naiz alik argiroen, eta aurrak berak ere erraz adi lezakeen eran ipintzera

Galdetzen badidazute, guraso maiteak, ea liburutxo onetan ipintzen dan guzia egiaz ala gertatu zan? Erantzungo dizuet, ezen onek

dakartzien gertakaririk andi edo prinzipalenak guziz egiazkoak dirala, eta gañera dauden apañgarri txikiai egiaren itxura ematera saiatu naizela; zeren kondaira bat ondo eta biziro agertzeko, itxur oiek añ diran bearrak, nola pintura edo estanpa batean kolore desberdiñak; bada oekgabe, pinturak zer dan ezagungo ez luke.

Arzazute bada liburu au zuen onginaiz eskañtzen dizutedan eskuerakutsi bat bezela, eta balia zaitetze beronez, batez ere zuen neke, trabaju, estura eta penetan eta asko lagunduko dizute Jaungoikoaganako uste eta konfianza oso eta bete bat artuaz, sofrikari guziak onez eramateko, eta au da zuei opa dizutedana

LENENGO BURUA

Sigifredo Kondearen esposa Jenobeba

Fede egiazkoaren argi ederra zabaltzen Alemanian abiatu zanetik laster bizi zan Beljikan Duke andi, aberats prestu bat, Brabantekoa. Orduko gerretan egiñ oi zituen egin-bide edo azaña guzizkoak zirala bide, guziz sonatua zegoan, eta Jaungoikoaganako bere beldur, gizonakaganako onginei, eta justizia zuzen eta zorrotzgatik guziz onratua, eta begiratua arkitzen zan. Bere esposa Andre Dukesa bertute eta prenda on guzietan senar añ on bati zegokion erakoa zan, eta biak biotz bat bakarra zeukaten. Alaba bat baizik etzuten, eta au Jenobeba zan, zeña biotz guztitik maite zutena bezela, ardura, kontu eta arretarik andienaz azitzen zuten.

Aurtasunetik azaldu ziran Jenobebagan adimenturik argiena, biotzik prestuena eta jeniorik gozo eta paketsuena. Baldin, orduko Etxekoandre andizkiak oi zuten bezela, Andre Dukesak linaia artzen bazuen, Jenobeba bost urtekoa

zalarik, bere amaren ondoan sillatxoan jarri, eta ardatza ondo erabiltzera, eta ari-albeñu meak irutera alean saiatzen zan. Ardatzean ziarduten bitartean alabatxoak bere amari galde arrigarriak egiñ, eta amak eranzuera lano, gozatsu eta zegozkion erakoak eman oi ziozkan. Ama biotzbigun onek bere alabatxo kutunari txunditurik begiratu, eta esan oi zuan, ezen aur ark besterik ez bezelakoren bat bear zuela irten. Jende guziak aur argan zerutik jatxitako aingeru bat zekuzala uste zuen. Amar urteetatik amabirako garaian bere guraso laztanakin elizara joan, eta guziak arritzerañoko jaiera, debozio eta modestiarekin oi zegoan. Zerutik jatxitako aingeru pozkarri baten gisa, ala beartsuen etxetxoetan, nola eri eta miñantzez zeudenen oi-aurrean, agertu oi zan: berak bere eskuz egindako arropatxuak aur bearrekoai eman oi zizten; eta bera apaintzeko Aitak ematen ziozkan urrezko apaindurak beartsuen artean zabaldu oi zituen. Ixillka saskitxoak galtzarbean artu, eta goiz illuntzeetan gaxo zeudenetara joan, eta bere buruari kentzen ziozkan fruta eta janari osasungarriak aiei ematen zizten. Urteetan elduaz zijoan eran, bertute guzie-

tan aurreratzen zan, alatan, non ama guziak beren alabai gauz on guzietarako ispillutzat begien aurrean aur au ipiñi oi zioten.

Sigifredo Kondea Jaun prestu, azkar, aberats eta gozatsu bat zan. Jenobebaren Aitak Jaun au gerra guzietara beti berekin oi zeraman, eta alako batean Aita au galdu-gordean arkiturik, Sigifredok eriotzetik libratzea gertatu zan. Mese-de andi onen ezagueraz geroztik Dukeak beti berekin oi zerabillen, eta geroenean bere alaba Jenobeba emazte eman zion. Jenobebak bere senarrarekin aitaren etxetik joan bear zuen egunean, etxe artan ezezik erri guzian ere negarrez urtzen etzanik etzan, eta Jenobebak berak ere, bere senarra añ maite zuelarik, negar aldi andiak egin zituen.

Aitak bere besartean estutu, eta malko ugarriak zerizkiola, esan zion: Onela iges egiten diguzu, ene alaba! Zure ama eta ni zartu gera, eta ezdakigu geiago ikusiko ote gaituzun; baña Jaungoikoa zurekin dijoa, eta zeran lekuan zerala, zurekin izango da. Zere gurasoakgandik ikasi dezuna beti eta leku guzietan gogoan iduki zazu, eta etzaite iñoiz ere zearkatu ez asko eta ez

gutxi bertutearen bide zuzenetik. Ondoren bere Ama laztandu zitzaion, eta negarraak itxutu eta ozta esan al izan ziozkan hitz oek: Ah! Ez dakit zer neke, eramankizun, naigabe eta penak datozkitzun gañera! Nere biotza biziro estutua dago eta ondore guziz gaiztoak datozkitzula, adierazten dagokit. Alaba guzizko bat izan zaitugu, gure konsuelorik andiena izan zera beti, naigabe-penarik eman ez diguzu. Ah! aurreron-tzean ere on izan zaite, Jaungoikoarekiko eta zere gurasoakiko lotsa zaitzakean ezer ez egin. Onela Jainkoak nai badu, lurrean alkar geiago ikusiko ezpadegu ere, duda,gabe Zeruan ikusiko gera.

Orduan guraso prestu oiek Kondeari begiratu, eta oni ere esan zioten: Seme, izazu maitezere emaztea: bera da gure ondasunik andiena, prendarik maiteena eta zuk egiñ ziñiguzun mesedearen ordañ eta saria. Izaiozu amore andi bat, eta gaurgero izan zaite beraren aita eta ama. Ala egingo zuelako itza Kondeak eman, eta Jenobebarekin belaunikaturik, beren guraso onen bendizioa biak artu zuten.

Garai onetan sartu zitzairen Jenobebarekin Sigifredo ezkondu zuen Obispoa. Oni Hildorfo zeritzaion, eta zar prestu, beneragarri eta guziz on bat zan; eta onek bere eskua jaso, eta bere bendizioa bi ezkon-berriai bota zien, esanaz Jenobebari: Ez nagarrik egiñ, oh gazte noblea, Jaungoikoak suerte andi bat eman dizu, baña emen iñork uste ez bezelakoa. Etorriko da eguna, noiz eta emen arkitzen geranok pozezko malkoakin suerte onegatik jainkoari esker milla emango diozkagun. Gogora itzatzu orduan nere hitz oek: laster gertatuko zatzu gauz andi, miragarri eta oi ez bezelakoren bat, eta Jainkoa zurekin dedilla.

Gizon zar onen hitz oetan gertakari andi, miragarriren bat guziak zekusaten, eta guziak Jainkoaren eskua adoratu zuten. Jenobeba beor eder apañ baten gañean jarri, eta laguntalde zoragarri baten erdian guziak beren etxerontz joan ziran

BIGARREN BURUA

Sigifredo Kondea gerrara

Sigifredoren jauregia Rin eta Mosela deritzaien ibai andi bien artean zegoan. Konde au ara alderatu ez altzan, bere serbitzari eta agindupeko guziak, ala gizon nola emakumeak, eta mutiltxo, neska txiki, eta aurrak ere beren arroparik onenaz apañduta bidera irten zitzaiozkan. Jauregi guzia eta bideak ere zuaitz-osto eta lore ederrez apaindu zituzten, eta jende guziak Jenobebari, bere edertasunaz txunditurik, begiratzen zion. Jenobebak beorretik jetxita, añ gozatsu, añ amorez, añ biguñ guziaz hitzegin zien, non beren Etxekoandreaz eziñ geiagoraño itxutu eta prentatuak guziak geratu ziran. Gañera Kondeari bere baiezkoa eskaturik, bere soldadu eta serbitzari guziaz urte artarako soldata eta paga doblatua, eta erriko jende beartsuenai egur eta garizko limosna ugaritsu bat zekiela, agindu zuen. Beragatik guziak atsegin-kontentuz gañezturik, saltokari eta dantzari eman zitzaiozkan, alkarri, baña berezkiro Kondeari, albiste atsegiñak ema-

naz, eta senar-emazte gazte aien alde milla ta milla erregu eta promes zeruronz bialduaz

Sigifredo eta Jenobeba pakearik gozoenean bizi ziran: baña ditxa maitagarri onek luzaro iraun bear etzuen. Illuntze batean afalondoan senar-emazteak alkarren ondoan jarrita, Jenobeba, ardatzean egiñaz kantari zegoan; Sigifredo berriz bere emaztearen kantari gitarra batekin laguntzen; eta orra non supitoan gerrako tronpeta-soñuak beren jauregi edo gazteluko ateetan aditzen dituzten. Zer da? galdetu zion kondeak beraganonz itsumustuan zetorkion serbitzari bati. Gerra, Jauna, eranzun zion: Moroak Españiatik irten, Franzia guzitik ugolde bat bezela zabaldu, eta eriotz eta ondamendi andiak egiñaz alde oetaronz datoz. Or bean daude Erregeren aginduakin datozen zaldun bi; eta guk, iñola ere al badegu, gaur arratsean bertan joan bear degu Erregeren tropakin batutzera. Jenobebak lasterka jatxi, zaldun aiei bear bezelako arrera egiñ, eta ondoren eraman zituen berekin goiko salara. Gau guzi hura gerrarako bear ziran prestamenak egiten, eta etxeko gauza guziak gerorako zuzentzen igaro zuen Inguru aietako andizki eta zal-

dun guziak Kondeari laguntzera etorri, eta alde guzietatik gerra-soñu, zalaparta eta iskanbilla besterik etzectorren. Era berean Jenobeba Jaun arrotz aiei jatena eman eragiten, eta bere senarrari gerrarako bear zituen gauza guziak prestetzen txit arazotua zebillen. Zaldun guziak prest eta bear bezela armatuta jarri ziran; eta Kondea ere burutik oñetaraño armatu, eta guzien erdira etorri zan. Zaldizko eta oñezko gerrariak atarian zai zeuden. Orduan Jenobebak, sala artan sartu, eta denbora aietan usadioa oi zan bezela, eraman ziozkan bere senarrari bere ezpata eta lanza, ziotsala: Enplea itzatzu arma oiek Jainkoaren serbitzuan, zere erria gordetzen, eta moro arroen galeran. Au esanta, bere arpegiko kolorea eskuko pañueloa bezañ txuri egiñik, mintxuriak artuta bere senarraren besoetan erori zan. Gero zer izango ziran berak ere etzekien gaitz etorkizun andiak beregan barrunda zituen, eta ala senarrari esan zion: Oh Sigifredo! negargurea daukat; bear bada geiago etorriko etzera; eta aua esanta, bere aoa pañueloaz estaltzen zuen. Alai zaite, Jenobeba, Kondeak esan zion: Jaungoikoak nai gabe munduan iñork ere gordetzen ez

nau; denbora eta leku guzietan bere babesean edo anparopean gaude, eta añ urrean daukagu erioa geron etxean, nola ta gerran gabiltzanean; bakarrik Jaungoikoaren eskuak gordetzen gaitu puntu oro. Jaungoikoaren babesean añ seguru gaude eraso edo batalla baten erdian nola gure etxean. Jainkoari beldur dionak ezergatik ez zu zer beldurtu. Beragatik etzaite goibeldu, ene esposa laztana, eta niri dagokidanez egon zaite lasai eta soseguz. Zure kontua, jauregi onena eta nere ondasun guziena, Jainkoaren urrena, nere maiordomo leialari utzi diot; nere artu-eman, joan-etorri eta gauza guzien zuzentzalle bertatik geratzen da; eta zu berriz Jaungoikoaren anparopean uzten zaitut. Ondo bizi zaite, beti gogoan erabill nazazu, eta erregu ezazu nigatik.

Jenobeba atariraño jarraitu zitzaion, eta zaldun guziak beren bidean joan ziran. Gero Jenobeba sartu zan bere gelan, antxe soseguz negar egiteko, eta penaren indarrez egun guzi artan mokadurik irentsi etzuen

IRUGARREN BURUA

Jenobeba errugabe salatua

Kondea joan zanez geroz Jenobeba bere jau-regian bakardaderik andienez bizi zan. Egun sentia agertzen ez al zan, bere leiaurrean jarrita bordatzen zituen loreen gañera malko goriak ixurtzen zituen. Mezako ezkillak aditu orduko bere oratoriora lasterka joan, eta biotz guziz irazekiaz bere senarraren osasunagatik erregutzen zuen. Eliz-gauzak zirauten bitartean bere jarlekua iñoiz ere utsik ikusi etzan; eta leku artan bertan, gauerdialdean ere, ordu osoak igaro oi zituen. Ingurumaiko baserrietako neskatx guziak bereganatu, eta ardatzean, josten eta gañerako gauzak egiten trebatzen zituen bitartean, erakutsion eta kondaira miragarriak kontatzen zituen. Nola aurtxo zanetik gaxo eta beartsuen añ adiskidea baitzan, onelako guziaz ama egiazkotzat serbitzen zien. Jenobebak lana, eta lanarekin irabazia ematen etzion beartsurik inguru artan etzan; eta norbait gaizkitu orduko, hura ikustera bereala an zan; eta bere hizketa gozatsu, eta

eskuerakutsi ugariakin oien neke-trabajuak arintzen zituen. Gauetako bere arazoa liñoa irutea oizan; eta iñoiz edo berriz bere gelako leiaurrean illargitan eseri, biolintxo bat artu, eta kanta onen bat kantatzea. Gauza guzietan zuzen eta garbi, esamesa-biderik iñori ere eman gabe, eta iñor ofenditu gabe bizi zan.

Kondeak bere ondasun guzien kontua utzi zion maiordomoari zeritzaion Golo. Gizon aun guziz ondo-hitzegiña, ondo azia, fiñ-usaikoa eta bere hitz leun eta losentxakin mundu guzia engañatzen zekiena zan; baña denbora berean konzienziarik eta Jaungoikoaren beldurrik-gabea; berekoia eta gauza guziak bakarrik bere onagatik egiten zituena. Etzuen begiratzen egitera zijoan gauza ona ote, edo gaiztoa zan; baik irabazi edo atsegiñen bat emango ote zion ala ez. Kondea irten ez al zan, bertatik abiatu zan guzien Jaun eta nagusi izaten. Kondea bera baño areago apainduta, jan-edan ase bete eta jateketa andiak ematen abiatu zan; egunean jostaketa berriren bat somatzen zuen, eta nagusiaren izanak onela ondatzen zituen. Bestera berriz nagusiaren lengo serbitzari guziak guziz gogorki

artzen zituen, langilleetarañoko guziaz beren alogerak murrituaz, eta iñongo beartsuri limosna bat egiten ez utziaz Arteraño bakarrik Jenobebari begiramentu andia agertzen zion eta oni gogoko zitzaiona egiteko zer egin etzekien. Jenobebak beti itzal eta anditasunarekin hitzegiten zion, eta hitz-ase bat egiteko lekurik beñere ematen etzion; eta onela beti bere neurri eta mugaan zedukan. Golok lenengotik Jenobebari obeditzen ziolakoa egiten zuen, eta bere argaltasuna ezagutu etzekion, egiñal guziaz saiatzen zan. Golo ezarian lotsa austen abiatu, eta geroenean añ lotsagabetu zan, non emakume prestu bati egin al litzaiokean pretensiorik lotsagarrienak Jenobebari egiteko ausardia izan zuen. Jenobebak aserre bizian sartuta, arentzat ordu gaiztoan beregandik bota zuen; baña Golok, bere etxeakoandrea gorrotatzen ordutik abiatu, eta au galtzeko asmo eta bideak artu zituen.

Jenobebak Gologan gauz onik etzekusanak bezela, Kondearentzat karta bat eskribatu zuen, Golo nolakoa zan, eta onek zeñ aldi gaiztoa eman zion agertuaz, eta azkenean erregutuaz, gizon galgarri hura andik urrutira aiena zezala.

Kondearen koziñari gizon guziz on eta prestuak Goloren txatarkeriak galerazteko egiñal guziak egiten zituen. Koziñari onek, zeña baitari zeri-tzaion Drako, kart hura bere konfianzako perso-na baten bidez Kondeari bialtzea, bere kontura artu zuen. Ordea au ere Golo askojakiñak jakin zuen. Jenobebak Drakori karta eman zion unean bertan Golok, ezpata bat eskuan zuela Jenobeba-ren gelara sartu, eta onen aurrean bertan Drako tristea bere arekin josi eta hillotzik utzi eta dea-dartzar bat egin zuen. Deadar artara etxeko guziak itsumustuan etorri, ta Kondea izuaren izuz hilla zirudiela, hitzgabe, silla batean jarrita, drako berriz guzia odolez bustita, Jenobebaren oñetan hillozturik; eta Golo asma al guziak Kon-desaren kontra esaten arkitu zituzten. Golok bereala gezurrezko asmazioz betetako karta batzuekin Kondeari mandatari bat bialdu zion; Jenobeba emazte desleial, gaizto, infame des-honragarritzat salatuaz; eta gañera etxekoandre au gaztelu artako ziegarik izugarrienean sar zezatela, berak berez agindu zuen.

Golok bere nagusiaren berri ondo zekienak bezela, ezagutzen zuen, Kondea zuzen, errukitsu

eta prestua zala baña prenda eder oien artean
zakar-aldi eta supitoko aserreari leku ematen
ziona; eta ala, karta ayek ikusita bere esposa
berealaxe hill zedilla aginduko zuela, seguru
zegoan.

LAUGARREN BURUA

Jenobeba itxian

Jenobebarentzat autu zuten ziega guziz izugarria eta gaitzkillerik andienentzat zegoana zan: ziega onen urretik igarotzen zanean, Jenobebak ezurretarañoiko izua, eta an zeuden gajokganako errukirik andiena senti oi zituen, eta guziaz ere bera antxe sartu zuten. Leku hura obi bat bezañ otz, eta illuna zan. Bere pareteak beltzak eta betiko busti eta ezeantzaren indarrez oroldioz estaliak zeuden. Sotargaña adrillu otzezkoa zan. Saietera estu batetik egunaz sartzan zitzaion argi-anzak, toki hura zeñ izugarria zan ezagutzeko ezpada serbitzen etzion. Antxe lasto pixka baten gañean eserita egon oi zan. Leku nazkagarri artan zeduzkan gauza eta tresna guziak lurrezko txarro zar batean ura, eta ogipuska leor beltza ziran: au zan bere jateko eta jaki guzia. Betiko negarraren indarrez kolore guziak galdu eta erkitua zegoan. Lenengo izualdi eta zukurutzak zerbait aldegin zionean, eskuak tolestu, begiak zerurontz jaso, eta asi

zan jaierarik andienaz orazio egiten, era onetan: Oh zu zeruko Aita, lurpeko toki illun onetatik begira nagokizu: orañ alde guzietatik desanparatua arkitzen naiz, eta zu beste iñor eztaukat. Nere ezbear eta desdixari iñork begiratzen ezti; nere negarra iñorgana iristen ezda; nere antsia larriak emen itotzen dira; ordea zuk ikusten dituzu nere malkoak, aditzen nere suspirioak: zu leku nazkagarri onetan ere ementxe zaude. Ez nere Aitak, ez Amak dakite ni nola nagoan, eta nere senarra urruti dago; iñongo adiskidek ezin lagun legiket; ordea zure besoaren indarra galdu ez da; presondegi onetako atea zuk idiki zentzake, Aita zerukoa, urrikal nazazu.

Berriz estura larri-gorriak artu, eta negar malko gori ugariak ixuriaz, Ai! deadar egiten zuen, nere aldean zeñ doatsu diran gizonik beartsuenak ere! Berak nola nai ere ikusi lezakee goiko zeru orien urdintasun zoragarria eta lurra-
ren berdetasun ederra! Ay Kondesa naizen beze-
la baserritar neskatxatxo bat banitz! zein ondo eta naierara orduan biziko nitzakean! guziaz argi egiten dien eguzkiraño-
ko guzia falta zat! Baña

oraindik, oh Jaungoikoa, zu nereza zaitut, negarrez itotzen ziotzan. Izan zaite bada zu nere eguzki. Bai, zuzaz oroitzen naizen guzian bertatik argitzen da berriro nere anima, eta naigabepenez zatiturik dagoen nere biotza berriro negarretan desegiten da.

Orduan gogoratu zitzaiozkan Obispo zar beneragarriaren hitzak. Beraz au da, bere inguru maira begiratuaz, zion, au da o gizon santua, zuk aditzera eman ziñidazun ditxa? Lore arteko lengo bizieraren ondoren onetxek itxedoten ziran nonbait! Baña ni presondegi onetara jaxtea zuk nai izan dezun ezkeron onela konbeniko zitza-dan, Jauna. Bai, zuk neke-trabaju oek amorez bialtzen dizkidatzu, eta ala mesede ezkutuak dira; fruta askoren azal samiñaren barrunbean mami gozatsua egon oi dan bezela, zorion eta bedeinkazioa ezegoki eta nekepenen barrun-bean gordeak daude. Ala zure esku ongilletik datozkidan pena oen artean konsolatuko naiz. Bakarrik zuzan pensatuko det nere etsaiai errurrik egotzi gabe. Zuk, onela nai dezu, ementxe naukazu, bada, Jauna, nizaz nai dezuna egin dezazun: guziak zure eskuerakutsiak dira, eta

zuk nai ez dezula, illetxo bat bera ere aterako ez didate.

Onela erregututa bereala beregan alaitasun andi bat barrundatu zuen: iruditzen zitzaion aditzen zituela bere barrunbean hitz oek: Alai zaite, Jenobeba, zuk oraindik asko eraman bear dezu noaski; baña eramankizun eta tormentu orietatik Jainkoak aterako zaitu. Egia da, orañ gizonen begietan pekataritzat zaudela; baña egunen batean zure garbitasuna eguzkia bera baño argiago eta garbiago agertuko da. Eta onen ondoren lo gozo batek artu zuen.

BOSTGARREN BURUA

Jenobebak egiten du semea karzelan

Jenobeba presondegi artan hill askoan zegoan, eta denbora luze guzi artan Golo ezpazan beste inor ere ikusi etzuen. Gizon galgarri onek bere asmo bigurriak betetzeko egiñalik andienak egiten zituen, eta bakarrik berak nai zukeana eginta, andik ateratzea eta galdua zedukan ondra biurtzea agintzen zion. Baña Jenobebak erantzuten zion: Naiago det egiaz desonra nazakean gauzarik egin baño, gizonen begietan desonratutzat egon. Naiago det bekatu baten bidez Erregiñ izatera igo baño kalabozo onetan ustelduta geratu.

Oraindik geitu zan bere pena. Jenobeba, bere senarra gerrara joan zitzaionetik laster aurdun sentitu zan, eta gero aurgiteko garaia etorri, eta semetxo bat mundura eman zuen. O ene biotzeko laztana! bere hura, besartean estutuaz, esan zion, toki izugarri onetan mundura zera?

Ai! atoz nere kolkora, ementxe bero zaitzadan; zure ama gajoak ez dauka zu biltzeko zapi txo bat ere; zuri kutxare bat esne epel ekarri degikezun persona bat ez dauka, Ai! Nola zure ama gaxotu eta erkituak mantenduko zaitu? Leku izugarri onetan eztago lur otz gogorra besterik zu eratzateko. Ura darien horma-arte eta abe busti oien erdian otz eta premiaren andiz illko zera gaixori. Zergatik zuek goiko arriak, nere semetxoa bustitzen didazute ur-tanto orietan? Zuek ere gizonen gisa erruki-gabeak zerate? Baña ez, barka zadazute: zuek, parete mutuak, gizonak baño kupitsuagoak zerate: nere senarrarekin nere gaitzegokiari, guziok goibeldu, eta nerekin batera negar egin-gabe eziñ begiratu diozute

Orduan bere begiak zerurontz goraturik, bere semetxoa bere besoetan jaso, eta negarrez zio-tsan: O Jaungoikoa! aurtxo au zuk eman didazu, zuk berari bizia eman diozu; bada zure doaia dan bezela, zuri dagokizu, eta zuri eskañtzen dizut. Nik ezin bial negizuke zure eliza santura; baña toki onetan ere ementxe zaude, eta zu zauden lekuan dago zure eliza. Aur au bataiatzeko esku

ongille bat emen eztago; eztago aitari eta aita pontekoari beren eginkizunak adirazteko Apaiz bat; ala bada, ama-ponteko-orde, aita-orde eta Apaiz-orde neronek egingo det. Al nezakean indar guziaz eta biotz guzitik agintzen dizut o Jaungoikoa, ezen baldiñ niri eta nere semeari bizitzen uzten badiguzu, seme au zugan fede santuan aziko dedala, o Aita jaungoikoa, zu eza-gutzen, eta zuganako eta gizon guziakganako amorea izaten erakutsiko diodala, joia eder preziatu bat bezela gaitzetik gorde, eta garbi eta pekatuaren mantxarik gabe egunen batean zuri biur degizudan, eta eman bearko dizudan kontu zorrotz artan ondo irten nadiñ. Orduan ixillik eta luzaro erregutu, urarekin zedukan txarroa artu, eta bataiatu zuen aurra emanaz izen Desditxatua, eta gero esan zuen: Lazeria eta negarretan mundura zera, Desditxatua da zuk bear dezun izena, eta zure Amaren negarra izango da zure tros eta oial.

Bere aurtxoan bere mantalean bildu, bere magalean ipiñi, eta ziotsan: Nere magal au izango da zure seaska. Gero tristezarik andienaz aldamenean zedukan ogi zati gogor beltzari

begiratuaz esan zuen: Au, aur gaxoa, auxe izango da gaur-gero zure janari. Zakarra da guziz, eta ezin geiagoraño elkorra, eta neretzat ere urria; baña poztu zaite, bada zure amak bere negar-malkoz bustiaz bigunduko du, eta Jaungoikoak bedeinkaturik, zurekin neretzat askoko da. Orduan ogi latz gogor artatik apur bat aoan maskatu, eta huraxe bere aurrari eman zion.

Aurra magalean gozotoro lo zedukan beñgo batean, aurraren gañean auspeztu, eta esan zuen: O Jaungoikoa! begira zaiozu aur gaxo oni emen nere magalean! ziega illun otz onetan eguzkiaren argi eta berotasungabe, kanpoko aize osasungarrigabe, laster erkitu eta galduko da. Ai! nola landare gazte biguñ onek emen iraun aldezake? O Jaungoikoa! ez arren utzi onen errukarri hiltzen. Ai eta zeñ maite dedan! zeñ pozik nere bizia onenagatik emango nukean! Bai, baña zuk oraindik nik baño maiteago dezu: zuk ni eta beste guziak, ama batek bere semea baño maiteago gaituzu; bai, au zerorrek esan dezu: ama bat bere semeaz aztu baliteke ere, ni sekula zuzaz aztuko ez naiz. Jenobebaren hitzket onek bere semetxoa esnatu, eta orduan lenengo

txorofarra agertu zion. Eta zuk farra egiten dezu, ene semetxo kutuna? ziotsan biotzaren kontra estutuaz, eta eztezu begiratzen toki zeñ izugarrian gauden? Bai, egizu farra gaxorrek, eta ez beste gauzarik, bada zure farratxoak milla mingañek baño geiago esaten dit. Iruditzen zat esan nai didazula: ama, etzazu negarrik egiñ eta alai zaite; zu guziz bearrean zaude; baña Jaungoikoa aberatsa da: zu desanparatua zaude, baña zure anparorik andiena jaungoikoa da; zuk agitz maite nazu, baña zu eta ni Jaungoikoak oraindik maiteago gaitu. Bai egizu bakarrik farra, ene semetxo laztana. Zu farrez zauden bitartean, ezin legoke negarrez zure ama.

Egun batzuen buruan Golo berriz ere presondegi artara etorri, eta arpegi urduritu eta igaro batekin Jenobeba gajoari aurreko aldean jarri, eta esan zion: Naikoa eta geiegi itxedon det: oraindik ere ero baten gisa eta itxura utsezko bertute ori utzi gabe jarraitu nai badezu, kupi zaite beintzat zere seme orrezaz. Ea bada, baldin nere gogoia egin nai ezpadezu, ziñez eta benaz esaten dizut, bai zu, eta bai semea biok hilko zaituztedala. Jenobebak soseguz eta beldur

gabe erantzun zion: Naiago det milla bider hill, Jaungoikoaren, nere senar eta nornai gizon pres-turen aurrean lotsa nazakean ezer ere egin baño. Golok begitarte izugarri bat ipiñi, eta kolo-re guziak galdurik, bazter guziaz ikara eragitera-ño zabalaparta batekin ziegako atea itxirik Jeno-beba beldur laborrian utzi zuen

SEIGARREN BURUA

Artzen du Jenobebak bere eriotzako epaiaren albiste

Alako batean sentitu zuen Jenobebak gauerdialdean bere presondegiko saietera-zuloan kiskatako bat, eta denbora berean aditu zuen bozergel eta ikarazko bat, ziotsana: Esna zaude ene Etxekoandre maitea? Ai! eta nola esango ote diot! Ai Jauna, negarrak itotzen nau... ezin hitzegin det... Golo madarikatu ori... Jaungoikoak kastiga dezala, eta gizon gaizto orri lotsa gaizto dakiola... Eta zeñ zera zu, galdetu zion Jenobebak zutik jarri, eta zulo artaronz begiratuaz. Torreko Talaiariaren alaba naiz Andrea, eranzun zion bozak. Ezagu zazu, Etxeko andre maitea, añ luzaroan gaxorik oi dagoan eta bere gaitzaldian zuk ainbeste on egin diozun Berta. Ai! Zuri bizirotz, eta ai nere esker, ezaguera eta naitasuna nik nai bezela ager al banegizkitzu! Baña ai! eta albiste izugarri batekin natorkizu. Gaur

arratsean bertan hill bearra zera, eta au Kondeak berak agindu du; bada onek emazte saldu infame eta Golok gaztigatu dion bezelakotzat bide zauzka. Onelaxe eskribatu dio Golori, eta agindu zaie borreroai. Au duda gabe egia da, alabañan borreroai au agintzen neronek ikusi det. Eta, o negargarrien andiena! Zure semea ere hill bear da, bada Kondeak beretzat ezagutu nai eztu... Ai! arnasarik artzen naigabeak uzten eztit; eta orañdañoko guzian begirik itxi ez det. Beste guziak loak artu dituen garaian nere burua oitik bota, eta arrastaka nolabait etortzera saiatu naiz; bada beñ bederik zurekin hitzegin gabe, zuri azken agurra egin gabe eta izan didazun legeagatik eskerrak eman gabe ezin etsi neza-kean. Orañ zerbait agindu nai baziñit, edo agertu nai zendukean gauza gorderen bat zere biotzean badaukazu, agin zadazu eta ager zadazu konfianza guziaz, zure gauza isill guziak zerekin batera lurpean ezkuta ez ditezen; eta bear bada egunen batean nik agertuko det zure garbitasun eta kulparik eza.

Jenobeba gorputz guziko ikara-larriak artu, eta izuaren indarrez ezin luzaroan hitzegin zuela,

geratu zan. Noizbait beregandu zanean, esan zion; Aur maitagarria, orren ona zeranez geroz, ekaizkidatzu argi bat, tinteroa eta papera. Gauz oek neskatzak ekarrita, Jenobeba asi zan eskribatzen; eta nola sillarik eta mairik ez baizeukan, eskribatu zuen sotargañean ondorengo karta au.

Ene Esposo laztana: nere presondegiko lur otz gogorraren gañean etziñik, azkeneko aldiz eskribatzen dizut. Zuk karta au irakur dezazunean, eta denbora askoz lenagotik nere gorputza lurpean usteldua egongo da. Ordu gutxi barru Jaungoikoaren Tribunalean agertu bear naiz. Eriotzera sentenziatua nago gaitzkillen bat banintz bezela, baña hiltzera garbi eta ezertan kulpa gabe noala, Jaungoikoak ondo daki. Jaungoikoaren arpegiaren aurrean, eta eternidadearen ateetan hitz ziñeztuaz esaten dizut, sinis nazazu, ni gezurrik gabe noala mundutik.

Ah! ene senar maitea! zugatik eta bakarrik zugatik daramat onenbeste. Zu izugarri engañatua ez izatera zere semea eta Jenobeba hilltzeko aginduko etzenduela, seguru nago; baña egin dizuten engañioa egunen batean agertzen badezu, ah, etzaite estutu. Zuk beti maite izan nindu-

zun, eta nere heriotzan errurik eztezu Jainkoak onelaxe erabakia dauka. Orañ eska zaiozu berrari, ondo begiratu eta pensatzeko leku gabe gauzau egiñaren barkazioa. Ezezazu arren iñor sentenziatu geiago aditzeko tokirik eman gabe. Izan bedi au denborari lekurik eman gabeko zure sentenzi azkenekoa; eta gertaera gaizto onetan zuk kulpa gutxi badezu ere, beste milla egikera on egiñaz, erremedia zazu. Au da zuk egiñ alzentzakean gauzarik obeena. Gu estutzeak eta ernegatzeak utsa balio du. Gañera nik sinisten det, badala zero bat; antxe ikusiko dezu berriz zere Jenobeba, ezagutuko dezu beraren garbitasun eta leialtasuna; antxe ikusiko dezu lenengo aldiz zere semetxea ere, eta an ez gaituzte bereziko alkargandik gizon gaiztoak. Lurrean instante laburretako bizia daukat, nere azkeneko eginkizuna bete det, eta nere garbitasuna agertu dizut. Oraindik ere azkeneko egun oek baño obeetan agertu izan ziñidan amore eta naitasunagatik ematen dizkitzut esker milla. Nik zuegana naitasuna, nerekin daramat obiraño. Gogorra itzatzu nere guraso onak; izan zaite berakiko seme on bat; konsola itzatzu beren negar

andian. Ai! nik eziñ eskriba nizaiekee, bada nere azken ordua alderatzer da; baña zuk esaiezu, aien Jenobebak kulparik etzuela, garbi hill zala; bere heriotzeko orduan ere gogoan zeduzkala, eta berari egin zizkioten on guzien eskerrik andienak ematen ziztela.

Ez ezazu arren zere aserrearan hill Golo, gizon buru-jauzi au. Barka zaiozu, nik barkatzen diodan bezela. Aditzen dezu? Auxe eskatzen dizut. Ez det nai eraman eternidadera iñorentzat gorrotorik, eta odol tanto bat bakarrak ere nigatik ixuri bear eztu. Niri lepoa ebakiko didatenai ere ez egiezu ezer egiñ ni kulpa gabe hill nautelako; baizik berakin beren familiai on egiezu; bada oek ezer ez dakite, eta Goloren agindua bortxaz egingo dute noski.

Drako gizagajoa zure serbitzarietako leial eta prestuenetatik bat zan: kulparen arrazarik gabe hill zuten. Begira zaiozu bere alargunari, eta bere umeen aitaordeko izan zaite; bada zuganak bere leialtasunak erakarri zion gajoari eriotza: zugatik hill zan. Ez aztu onen garbitasuna barreatu eta bere izen ona ostera biurtzeaz ere. Kart au emango dizun neskatxa ongi paga zazu;

bakarrik bera izan zat fiñ eta leial beste guziak kontra nituenean, edo obeto esateko, nigana alderatzeko biotzik Goloren beldurrez iñork etzuenean.

Izan zaite zere agindupekoentzat biguñago: ez egieztetzu egotzi karga eta pagakizun andiegia: ipiñi egieztetzu eraentzalle zuzenak, parroko onak eta mediku adituak. Espasunen batekin datozkitzun guziak aditzatzu amorez. Ai! nik zure mendekoen ama izanaz oiei mesede eta on andiak egiteko usteak nituen! Orañ nere ordezkuk egizu. Emendik aurrera bi aldiz zaude bear-tua beren guraso izatera. Nere azkeneko nai edo borondatea agertu dizut. Ah ene esposo laztana! ez geiegi tristetu nigatik; ni pozik noa hiltzera... zeren bizitz au laburra dan eta penaz betea... eta, pekataria naizelarik, Golok somatu dizkidan gauza guzietan txit garbi eta inozente nago, eta kezkarik ezdaukat. Jaungoikoak bere grazian artuko du nere anima. Azkeneko aldiz adios. Batere aserre gabe eta amorez gañezturik eskribatzen dizut, izanaz oraindik heriotzean ere zure Esposa Jenobeba.

Jenobebak negarrez urtzen eta malkoak eta tinta alkarrekin nastuaz eskribatu zuen kart au eman zion neskatxatxo ari esanaz: Gorde zazu karta au zintzo eta joia bat bezela; eta etzaiozu agertu iñori ere, eta nere senarra gerratik etortzen danean, ipiñi zazu bere eskuetan. Orduan Jenobebak bere lepoan zedukan perla prezio-tsuzko kollarea artu, eta esan zion: ar zazu lepoko au zure malko leial eta urrikaltsuen alderako. Au nere nobioaren eskuerakutsia zan, eta bera- ren eskuetatik artu nuanez geroz beti eta iñoiz ere erantzi gabe nere lepoan erabilli det. Asko milla ezkutu balio ditu, baña aberastu zeralako etzaite muduarekin bere gauzai itsatsi. Gogora zazu nola zure Kondesak laster kanibetaz ebaki bear dioten lepoan erabilli zuen. Ikas zazu nigan nola bat gizonik obeenaz ere ezin fia litekean. Ai! lepoa apaintzeko perla oiek eman zizkidanak berak lepo au berau ebakitzea aginduko zuela- koan ez negoan! Beragatik bakarrik Jaungoikoa- gan fia zaite; eta orañ zoaz ordu onean: izan zaite beti on eta urrikaltsu. Nik nere biotza Jaun- goikoagana biurtzeko garaia det, eta eternidade- rako prestatu bear naiz Agur, bada.

ZAZPIGARREN BURUA

Jenobeba hiltzera

Neskatx onek Jenobebagandik aldegiñ ez alzuen, sartu ziran presondegi artara gizon armatu bi; bata eskuan argi batekin, eta bestea ezpatarekin, Jenobeba belauniko topatu zuten. Jaiki zaite, Jenobeba, esan zioten, eta garraigu-zu; eta oraindik gozakaitzkiroago esan zioten: zere umea zerekin artu eta goazemazu. Jaungoikoari eskerrak, esan zuen Jenobebak, bere eskuetan arkitzen naizenean. Jaiki zan, eta belaunetako ikarak pausorik ematen ozta utziaz, gizon-azkar aien ondoren joan zan. Argia zera-man gizona aurretik, eta ezpata zuena atzetik zijoazkion, eta gañera, zakur andi bat ere bera-kin zuten. Lurpeko bide batetik luzaro joan ta, geroenean irten ziran mortu batera. Udazkeneko gau eder izarratu bat zan, eta illargia orduantxe irteten zan. Aize otza zebillen, eta gizon aiek hitzik ateratzen etzuten. Jenobeba mortuaren biotzera sartuta, alde guzietatik sastraka, sasi eta zuhaitzez ingurutako toki illun izugarri bate-

ra eldu ziran. Ara ziranean, ezpata zeraman gizonak gogorkeri guziaz esan zion: Gera zaite or, Jenobeba, eta jarri zaite belauniko. Ume ori utzi zazu, eta ik, Enrike estal akizkio begiak. Gizon au bere ezpata jasoaz, aurrera besoetatik kentzera joan zitzaion, baña Jenobebak bere hura berrartean geiago ta geiago estutuaz, esan zion: O Jaungoikoa! utzi nazazu ni hilltzen, baña gorde zaiozu bizia nere seme biotzekoari. Ez gogorrik egiñ, esan zion gizon zatarrak, egin bear deguna egingo degu eta hitz gutxi. Baña Jenobebak negarrez eta suspirioz esan zien: Oh! izango dezute zuek aur triste au hiltzeko biotza? Zer gaitz egin dizute onek? Nori txarkeririk egin dio? Hill nazazute ni ordu onean, pozik hilko naiz; ona emen nere lepoa agirian; baña utzaiozute arren aur errukarri oni bizirik: eraman zaiezute nere gurasoai, edota zuek au egiteko biotzik ezpadezute, utzadazute bizia, ez nigatik, ezpada nere seme gaxoaren errukiz. Mortu onetatik sekula irtengo ez naiz; sekula gizonen begietaratuko ez naiz. Ah! begira zadazute niri, zuen Kondesari, zuen aurrean belauniko eta zuen belaunai negarrez elduaz! Noizbait gaitzen bat egin badizuet,

hill nazazute; gaiztakeriren bat egin badet, ken zadazute bizia;baña zuek ondo dakizute nik eztedala kulparik. Ai! baldiñ orañ nere negarrak ezertan artzen ezpadituzute, zeron konzienziak berak zulo tuko zaituzte. Erruki zaitetze nizaz, eta Jaungoikoa errukituko da zuezaz. Etzaitetze amildu mundu onetako irabaziakgatik gauza gaiztoak egitera, zeren zuen gañera eternidade guziko kastigu izugarria ereriko dan. Izan zaitetze gizonen baño Jaungoikoaren beldurrago; edota, naiago dezute Golo orri obeditu Jaungoikoari baño? Ez arren ixuri kulpagabearen odola, bada, odol au zeruari benganz ezke dagokio; eta kulpa gabe norbait hiltzen duenak, sosegu eta onik sekulan arkituko eztu.

Nik, eranzun zion ezpata zuen gizonak, agindu didatena baizik egiten ez det: ona ote edo gaiztoa dan, Golorekin Kondeak jakingo dute. Ordea Jenobebak negarrez esan zion: Ah! begiruzute zeruronz: ikusten dezute illargi ori? Begira nola zuek egin nai dezuten gauza ez ikusteagatik bezela, odei-artean gordetzen dan. Begira nola odol-kolorea artzen dijoan. Ah! orrela jartzten dakusuten bakoitzean eta beti emango

dizute arpegira, egitera zoazten gaiztakeria. Bai, beste guziaz argi eta eder ager dakienean ere, zuei gorri eta odoldua bezela agertuko zatzue. Oh! adi zazute; begira, begira nolako aize-kolpea sartzen dan: Ez dezute ikusten zeñ izugarri zuhaitzak ikaratu eta ostoak danzaten diran? Inozente baten heriotzaz gauza guziaz izutzen dira. Oh! aurreronzean edozeñ ostoren ibilliak izutuko zaituzte. Begira an goiko izarrak: begira zenbat milla begirekin zerua begira dagokizuten. Jaungoikoaren zerupean onelako gaiztakeri bat egiteko ausardia izango dezute? Gogora ekarzte nola an izarrak goitik Jaungoiko bat dagoan, eta nola egunen batean beraren aurrera agertuko geran. Oh zu, alargun eta umezurtzen Aita, bigun itzatzu arren goi orretatik gizon oen biotzak; berak ere emazte eta aurrak dituzten gizon oenak; eta gera egieztetu beren besoak, ama gajo eta seme errukarri oei barka diezaien, eta barkatuaz, gaiztakeri izugarri onen karga pisua beren geñeratzetik libra ditezen.

Arteraño beti ixillik egon zan gizonak bere begietatik malkoak zerizkiola, besteari esan zion: Onek biotza erdiratzen zidak, utzi zaiogun

bizia. Odola ixuri-zale baaiz, egotzi akio ezpat orren kolpea Golori, eta ez emakume triste oni. Hura dek kulpaduna, eta onek bere bizian ona besterik egiñ ez dik. Gogora ekark zenbat mese-de ire azkenengo gaitzaldian egin zian... Erremedio gabe hill-bearra dek, esan zion Konradok; ik diokana ezin gentzakek, Enrike: au hilltzea nero-ni ere aldapa egiten zadak; baña bizirik uzten badiogu, Golok hi eta ni hillko gatxetik, eta guk uzten diogun biziak oni utsa serbituko zio, alabañan laster-asko Golok topatu eta hillko dik. Gañera nai edo ez eraman bear ziozkagu onen begiak, hill degula, sinisterazitzeko. Orregatik ere utzi zaiogun bizia, esan zion Enrikek. Guk egin gentzakeana dek orañ esango diatana. Gu salatuak eta galduak izan ez gaitean, agindu erazi degiogun hitz ziñeztuaren bean, eztala sekulan irtengo mortu onetatik; eta eraman zaizkiogun ire zakurraren begiak. Seguru natxeagok Golori bere konzientzia galduak engañu au eza-gutzeko lekurik emango ez diola. Baña ta zakurra hilltzeak orren min ematen dik? Ezderitzak, Konrado, gure Kondesa maitagarria eta Konde-txoa, ama errukarri au eta bere seme gaitzgabea

maiteago bear ditugula ire zakurra baño? Konrado ez adi orren biotz-gogor izan...

Ez nauk, eranzun zion Konradok, ik uste bezelakoa: egundaño etziatak iruditu nere bear-gaia gaur bezañ penagarri; baña Golo biziro aserretua zeagok, bai, eta... Asko dek Goloren konturik, eranzun zion Enrikek; bizia gordetzea gauz ona dek noski, eta gizonak gauz ona egiteko beldur bear ez dik. Guk orañ autsi-oso bat galerazitzeko modua egiten baldin badegu, zer etorriko zaguk? Gauz on onek goiz edo berandu bere fruituak emango zizkiguk. Ala izan dedilla, esan zuen Konradok, arriska gaitean.

Bereala agindu erazo zioten Jenobebari juramentuaren bean, basa-mortu artatik sekula irtengo etzala. Konradok, oraindik seguruago jokatzeko, Kondesa eta bere semetxoa eremuaren biotzera, basa-piztiak besterik egundaño iritxi etzan toki izugarri batera sartu, eta an, indar guziak aituta, zutik egoteko kemen gabe zuhaitz baten ondoan utzi zituen. Enrike oraindik amaseme triste aiezaz kupiturik, berakganonz begiratuta, esan zuen: Jaungoikoak erruki ditzala, gajo oek, eta aurrerontzean oien kontua berak

iduki dezala; bada Jaungoikoa gizonak baño errukitsuago ezpalitz, galduak lirake.

Gizon aiek jauregira itzuli ziranean, Golo amorratu baten gisa silla batean etzanta, bere buruaren karga eskuakin irozoaz zegoan. Emen dakaizkitzugu, Jauna, Jenobebaren begiak, esan zion Konradok, atean jarrita, zakurraren begiak, eskuetan agertuaz. Etzetiat ikusi ere nai, deadar egin zion Golok, amorratzeko zorian, eta zutik altxa, bere ezpatari eldu, eta esan zien: Baldiñ geiagoren geiago iñork aipatzen ere badit Kondesarik, ezpat onekin bertan josiko diat. Ken akizkit ordu gaiztoan eta laster nere begietatik, eta ez geiago agertu nere aurrera. Kontu polita dek auxe, esan zuen Konradok berekiko; len Kondesa hilltzeko añ poz, estu eta larri uan, eta orañ hill degulakoan amorratzen zeagok, alatan non bere ustean egiña daukaguna egin gabe idukitzeagatik, eskuko beatz bat emango likek. Ah! bere griña makurrai darraikiena, azkenean beti engañatua arkitzen dek.

ZORTZIGARREN BURUA Jenobeba eta bere semea basauntz batek heriotzetik ateratzen ditu

An egon zan Jenobeba txar-aldi batek artuta luzaro zuhaitzaren ondoan, arik eta bere onera zanean mortu illun artan bere aurra beste lagun-
nik gabe bere burua desanparatua ikusi zuene-
raño. Zeru guzia goibeldu zan, eta illargia sartu
zanetik egunsentira zeuden ordu luzeak guziz
illunak ziran. An otso eta piztia gaiztoen ots eta
orroa izugarriak beste ezer aditzen etzan: eta ala
ezurretarañoako laborriak arturik, o Jaungoikoa, o
Jaungoikoa! deadar egin zuen, zer ikara, zer izua
sartzen zadan! Emen ere zu nerekin zaitut: gau
illuna ere zuretzat argia da, eta ala zuk ikusten
nazu. Beste iñor eztagoan toki onetan ere zu
arkitzen zera. Zuk bere ustea zugan ipintzen
duen iñor iñoiz ere uzten eztezu. Esker milla,
Jauna, nere semetxoa eta ni gizonen atzaparre-
tatik atera gaituzulako. Jauna, zuk ezgaituzu

utziko piztia gaiztoen janari izaten, zugan daukat nere uste eta konfianza guzia. Zuhaitzaren oñean eseri eta bere semetxoa magalean zuela, bere eskuak tolestu, eta bere artan itxedon zuen egunsentiraño. Goiz hura illuna zan, eta guziz tristea: toki hura guzia arkaitzti, sasarte, bakar, pisu eta izugarria: bizirot aize otza zebillen, eta guziaz gañ, ez bear geiagorako elur ugaritsu batek eraso zion. Jenobeba otzak ikara zegona, eta semetxoa saminki negarrez abiatu zitzaion. Bere inguru guzira arbola-zulo edo arkaitzarte baten billan begiratzen zuen; baña au ere topatzen etzuen. Bere beatz biguñ minberakin elurra kenduaz, asi zan lurra zulatzen, sustrai batzuek atera naiez, eta kenduaz zijoan elurra eta lurra eskutik zerion odolaz gorriturik, apur batzuek atera-zituen: oek aotan maskatu, eta bere aurri eman ziozkan. Orduan, agitz estutu, larritu, auldu, eta kemen guziak galdurik, bere semetxoa besoetan artu, eta elur-eraso aren erdian mortu illun aiek barrena nora zijoan etzekiela, abiatu zan. Arkaitz batean gora zijoala, ikusi zuen beko aldean aitz tartean zirritu bat; nolabait araño jatxi, eta arkitu zuen unz-artean leize-

txo bat; an barruna sartuta, topatu zuan bi edo iru persona egon zitezkean estalpea Alabearrez aldameneko arkaitz batek ematen zuen ur garbizko iturri bat. Arroketan zegoan ere kalabazalandare bat, eta landare ark eman zituen frutu edo kurkubitak ere erdi usteldu an zeuden. Jenobeba bere aurrarekin leize artan sartu, eta aizeak eta euriak an jotzen ezpazituen ere, otzak ikara-gorrian zeuden. Eguerdia zan; goseak bizi-ero estutzen zuen; eta aurtxoa ere goseak beartuta berriro eta txit saminki negarrari eman zitzaion. Leizean belaunikatu, semetxoa lurrean bere aurrean ipiñi eta atakatik zeruronz begira erregutu zuen, esanaz: O zu, zeruko Aita ongi-ilea! ara emen Ama bat negarrez, eta bere semetxoa goseak hilltzen: Zuk neguaren biotzean ere arkaitz andi orietan dabiltzan beleak mantentzen dituzu: emen lurrean arrastaka dabiltzan arraz ere aztutzen etzera, eta piztia eta arbiskamota guziaz neguan ere dagozkien janariak eratzen dieztetzu. Zuk mortu onetan ere nere semea eta ni manten gaitzaketzu, arriak ogi eginta bederik. Eziñ aztu zindezke guzaz, Aita, eta ezgaituzu utziko gosez hilltzen.

Zuk orañ bizilekua eratu diguzu, gure janariaren kontua ere idukiko dezu.

Garai artan odeiak zabaldu, eta eguzki-epelgozoa leizera sartzen abiatu zan, eta atakan basauntz bat beñgoan agertu zan. Nola orduraño iñongo eiztarik persegitu ezpaitzuen, guziz otxan eta mantxoa zan, eta Jenobeba ikusita, izutu etzan. Leize hura basauntz onen bizilekua zan, eta ala, alerik uzkurtasun gabe barruna sartu, eta Jenobebaren aurrean geratu zan. Abere hura ikusita Jenobeba zerbait izutu zan; baña beldurrak pixkabana aldegiñ, eta bere eskuen artean gozatu zuen. Aberea, Jenobebaren onginaia ezagutzen bazuen bezela, otzan eta geldi zegokion: eta Jenobebari bere aurra eta bera aren esneaz mantentzeko modua egitea, orduan burura zitzaion. Basauntz onek, bere umea otsoak janik, errapea bete bete lertzeko zorian zeukan. Jenobebak bere aurra titian ipiñi, eta asetzeroño edan zion. Orduan bere arropa urratuen zati batzuetan bildu, leizearen zoko batean eratzan, eta aur gaixoa isill-ixillik eta pozik lo gozo batek artu zuen. Bere aurrari bear-gai aiek egindakoan Jenobebak beretzat ere zer-

bait egitea, pensaturik, leizetik irten, an bana-
tuak zeuden kurkubit-puskak bildu, mamiak
kendu, eta iturritxoan garbiturik, txukunki pres-
tatu zituen. Basauntza ere aurraren ondoan
lurrean etzan, eta bere arnasaren lurruñaz aurra
berotzen jarri zan. Jenobebak belar fresko biguñ
batzuek iturritik ekarri, eta jaten eman ziozkan,
eta abereak eskutik bertatik jan, eta mesede
aren ezagueraz bezela bere eskuak millixkatu
ziozkan. Orduan asi zitzaion Jenobeba bere kala-
baz puskara esnea jatzitzen, eta abereak batere
uzkurtasun gabe kalabaz aiek esnez betetzen
utzi zion. Jenobebak, lurrean belaunikatu, kurkuit
aietako bat esnearekin eskuan artu, gora jaso
eta egin zuen orazio, era onetan. O nere Jaungoi-
koa! artu itzatzu nere malkoak, zure esku ongi-
lletik etorri zadan mesede onen aldera. Bai, esne
au zure doaia da. Aitz-arte onetan zuk sortu
didazu zer jana. Zuk txoritxoren bati kalabaz-
azia onara erakarri ziñion, zure doaia non artua
izan nezan. Zuk aberetxo on onen bizilekura
nere pausoak zuzendu ziñituen. Orañ ez daukat,
ez, nere aur gaxoa goseak hillko didan beldurrik.
Atsegin-kontentuz eta sosegu oso batean zuga-

nako konfianzaz beterik begiratzan diot bada gañera datorkidan negu beltz gogorrari.

Pozezko bere malkoak esnetara zerizkiola, bere hura edan, eta esan zuen: nere bizian ez det edan esne au bezañ gozorik. O Jaungoikoa! zeñ gutxi nekien nik nere gurasoen mai ugaritsu erregalatuan zure doaiak bear bezela estima-tzen! Ah! nik orduan zuri eskerrak ez emana barka zadazu; premian zegoenari obeto ez lagundu izana barka zadazu. Ah! goseak nola estutu eta tormentatzen duen, nik ez nekien! Zenbati, nik, niri ezer asko kosta gabe, beren premietan lagun nizaiekeen!

Esne arekin zerbait zuzpeltu zanean, berriro Jaunari eskerrak emanta, ostera bere leizetik irten, eta zuhaitz zar, eta aitz-arteetan oroldio igar biguña bildu, eta beñ eta berriz mantala betean eramanez bere semetxoarekin beretzat etzauntza biguñ bat moldatu zuen. Gero leiz-ata-karen inguruan zinzilik zeuden sastraka eta zuhaitz-adarrak alkarri lotu, eta esi-gisa ipiñiaz zulo hura alik ongien estali zuen, aize gutxiago sar zekion. Topatu zuen ere an inguruan oroldio zuri-ori-berdez ederki jantzitako egur zar bat: eta

au puska bi egiñ, eta egur azalezko zuminz batekin lotuaz gurutze bat moldatu, eta alik ongien zulo artan ipiñi zuen. Jenobebak eserita zegoela, arteraño ez bezelako alaitasun eta pozaldia beregan sentitu zuen. Jaungoikoari bere barrunbean eskerrak ematen ziardun, presondegi izugarri artatik atera, eta Golok ezin topa zezakean alako gorde-lekua eratu ziolako. Toki artan ere asko eramankizunen begira zegoela, ongi ezagutzen zuen; baña gurutzeari begira jarri, eta zio-tsian: O nere Erredimitzalle jaungoikozkoa! Zu etorri ziñan nere amorez gurutzean hilltzera, eta nik zure siñale ori beti begien aurrean idukiko det. Orañ mortu onetan asiko naiz ermitañoen biziera zurekin egiten; orañ nere neke-penak artzen ditut nere gurutzetzat, gurutze au zuk bezela, nere gañera onez artuta beti erregutuko det esanaz: Aita, egin bedi zuk naizuna, eta ez nik nai dedana. Onek bere azkena noizbait izango du, eta etorriko da garaia, noiz eta nik esan al izango dizudan: egiña dago guzia. Orazio-aldi onen ondoren aspaldi artako orde z lo gozo batek begiak itxi ziozkan. Aurra ere Amaren epelean lo

zetzan, eta basaintza berriz bien oñetan. Onek sekula geiago utzi etzituen.

BEDERATZIGARREN BURUA

Eremuan Jenobebaren biziera bakar tristea

Andik aurrera Jenobeba eremutar egiazko bat bezela bizi zan. Negu hura joan zan, uda etorri zan; ostera negua eldu zan, eta bizkitarte luze hura guzia gauza berririk gertatu gabe onela igaro zan. Neguko gau gogor luze aietan suaren kutsurik eta argirik gabe, basa piztien antsia eta orroa beldurgarriak besterik aditu gabe; bere aurtxoarekin basauntza beste lagun gabe ikusi zanean, aren beargai guzia bere guraso, senar, adiskide edo beste nornairen arpegia ikusteko ditxa eskatuaz, Jainkoari erregutzea oi zan. Ah! negarrez esan oi zuen; zeñ zorionekoak diran alkarrekin bizi, alkarrekin hitzegiñ eta beren neke-pena eta konsueloak alkarri adierazteko ditxa daukaten personak! Eta zer zorakeria orrelako biziera ezertan ez daukaten, eta pakean bizitzen alkarri utzi nai ezik dabilltzan aiena! Baña bereala alaiturik, esaten zuen: O Jaungoikoa! zurekin hitzegiñ al izatea pare gabe ditx

andiagoa da, gizonakin hitzegitea baño. Gu jende-artetik urruti eta bakar bagaude, zu beti gere ondoan zauzkagu, iñor bizi eztan eremu onetan eta neguko gau luze oen erdian ere. Zer suertea puntuoro zurekin hitzegiñ al izatea, zurekin gure animen adiskiderik andiena zeran orrekin!

Onela oitu zan beti Jaungoikoarekin hitzegite-ra, hitzket gozatsu atsegin aietan ordu osoak instante bat bezela igaroaz.

Sustraiak ateratzeak eta basoko frutak biltzeak denbor asko eramaten bazioten ere, ordu askotan zeregiñik gabe egon bear izaten zuen. Orduan esan oi zuen: Ay galzet-orratz batzuek eta aria nork leuzkazkean! zeñ pozik nere aurra-ekin nerau jazteko arropak egiten jardungo nitzakean! Gizonak beren lanaz espaka jardun oi dira; baña lan gabe bizitze au tristea da guziz gogaitkarria, eta lanik zatarrena ere alperkeriaren aldean atsegiña da.

Askotan liburu on baten egarri andia oi zuen. Zenbat ordu guziz, naierara eta asko ikasiaz liburu on batekin igaro nitzakean! Zure obrak ere, nere Jainko maitea, nere inguruan dauzkadan

zure obrak ere zuk zerorrek egindako liburu batzuek dira. Ordutik abiatu zan Jainkoaren obrari kontu eta arret andiagoaz begiratzen; eta lorerik txikienak, txomorrerik ezerezenak, zernai gauzak Jaungoikoaren ontasun eta jakintasunaren gañean luzaro begiratzeko eta pensatzeko naiko gaia ematen zioten, eta kontsiderazio aiek ezin geiagorañoko atsegin-kontentua sortzen zioten. Udaberrian eguzki gozoa leizera sartzen asitzen zitzaionean, alaitasun andi batekin esaten zuen: Jaungoiko maitea, zure eguzkia neretzat zure ontasun eta amorearen irudi bizi bat da. Txorien kanta zoragarria aditu zuen goiz eder batean, deadar egin zuen: Zuek, izakari txiki eta alaiak, ezereen kezkarik gabe kontentuz beterik orren naierara eta ederki kantatzen dezute, nik ere alai egon eta kantatu bear ezdet? Jesusek onela nai du eta beragatik esan zigun: Begira zaiezute airean dabiltzan egaztiai: oriek ereiten ez dute, aldatzen ez dute, ganbaran gordetzen ere ez dute; eta guziaz ere zuen Aita zerukoak mantentzen ditu. Bai, ene Jainkoa, zuk egazti oiek guziak baño maiteago nazu; beragatik oriek baño askoz kontentuago egon bear nitzake; eta neretzat

garirik ereñ ez dalako, landarerik aldatu ezta-
ko, eta alerik ganbararatu ezta-lako orañ penatu
bear ez nitzake.

Baña leku triste artan atsegiñik andiena ema-
ten ziona bere semetxoa zan noski. Onen begira-
tu batek geiago alaitzen zuen, udaberriko eguz-
ki, kanpoko loreen edertasun, txori guzien kanta,
eta an ikusi eta aditu al zitezkean beste gauza
guziak baño. Otzik egiten etzuen egunetan leize-
tik atera ta an inguruko zelaitxora bere aurra
eraman, eta basauntza aldamenen belarra
jaten zebillen bitartean, aur gaxoa arunz-onunz
erabiltzen zuen; eta aurrak oraindik ezer ezagu-
tzen ezpazuen ere, aditzen bazion bezela biguñ-
tasun guziaz amak hitzegiñ oi zion. Hitzketan ari
zitzaion bitartean aurtxoak farra egiten bazion,
edota bere besotxoak luzatzen baziozkan, far
ark kanpo aiek guziak berritu eta edertzen zitue-
la oi zeritzan. Batzuetan zegoan tokian bertan
belauniko jarri, bere aurra bularraren kontra
estutu, ama baten samurtasun guziaz bere ari
begira jarri, eta esaten zuen: O Jaungoikoa! nola
emango dizkitzut nik bear ainbat esker, aurtxo
au eman didazulako? O zu, zeruko Aita, nere

semetxo onen gañera zere bendizioa bial zada-
zu: akitzen utzigiozu, eta orañdaño bezela aurre-
rontzean ere gorde zazu. Eta nola orduan aurrak
begi are argi eta alaiagoak ipintzen baizizkan,
amak jarraitu zuen esanaz: Zeñ garbi eta gaizta-
keriaren kutsugabeak dauden zure bekokitxo ille
kizkurrez apaindu ori, eta zure masalltxo gorri
zoragarri oriek! Zeñ ardura eta kezka gabe zau-
den emen nere magalean!

Guziz sarri egiñ oi zitzaion eliza batera edo
bestera joateko zale eta eresia. Zer ditxa, esaten
zuen, an millaka lagunak belaunikatuta Jaungoi-
koaren aurrean batutzea! Jaunaren hitza adi-
tzea, edo apaizak eta gañerako kristauak Jainko-
ari bialtzen diozkaten kanta zoragarri, erregu eta
eskariak aditzen egotea! Ah! ezkillá baten otsa
beñ bederik adituko banu, nere biotza asko eta
asko alaituko litzakedala deritzat. Baña, esaten
zuen berriz, mundu guzia, ni estaltzen nauen
zerua, nere inguruko eta azpiko lurra ere zure
eliza dira, Jauna; eta deserri onetan negarrez
deika dagokizun nere biotza zure aldarea da
Zelaitxo au izan bedi bada gaur gero zure eliz,
eta nere biotza zure aldare.

AMARGARREN BURUA

Mortuan Jenobebaren konsueloak

Lore eder bat sasartean azi oi dan bezela, Jenobebari eremuan bere atsegin-kontenturik zoragarriena aziaz zijoakion. Bere biotzeko semetxoa gogortzen zijoakion; eta noranai ibilltzeko diña egin zan. Jenobebak azari bati ortzetatik kendu zion basauntzkume baten narru pintarratu batez jantzi zuen. Mutilltxoa belar, sus-trai, esnea eta ura beste jan-edanik ezpazeukan ere, guziz mardul, sendo, galant, guri eta eder zetorren. Aur preziatuari bere ezaguera guziz goiz esnatu zitzaion; bere buruaren ezaguera izaten, eta ingurumaiko gauzak nolakoak ziran igertzen; hitzak esaten, eta esaten zitzaiozkanak aditzen ordurako abiatu zan. Iñoren hitzik aditu gabe añ luzaroan zegoen Jenobebak bere seme-txoaren lenengo hitza aditu zuenean, eta batez ere lenengo aldiz amatxo esaten aditu zionean nolako poza artuko zuen, Jaungoikoak daki. Au negu baten sarreran gertatu zan; eta ala, negu

artako gauetako ordu luzeak toki artan ikusten ziran gauza guzien izenak mutilltxoari irakasten igarotzen zituen; eta ikasiaz zijoan eran ama gajoak konsuelo aundiagoa artzen zuen. Mutill gaxoa, neguaren gogortasunak easan, azkene-ronz gaitz gogor batek artu eta luzaroan leizetik eziñ irten izan zan; baña udaberriko egun batzuek joan ziraneko berriz osasunean, eta arrosa eder batek baño ederrago ematen zuela jarri zan. Orduan Jenobebak eskutik artuta, zulo artatik zelai eder loratu batean barrena lenengo aldiz atera zuen. Udaberriak kanpoari eragiten dion aldaera zoragarriari begiraturik, aurrari mella andia egin zitzaion. Guziz arritu eta bere-gandik irtenik, gauza guziai begira jarrita, ama-txo, esan zion: au zer da? orañ guzi guzia len ez bezelakoa dago; len baño askoz politago dago. Orañ zelai au len bezela elurrez zuritua ez baizik berde ederrez jantzia dago. Len ostoa gabe eta igartuak zeuden zuhaitzak, orañ guziak ostoa eta lore ederrez apainduak daude. Auxe da poza; eta, ai nola eguzkiak berotzen duen, eta zeruak zeñ kolore ederra daukan! Eta begira lurrera, amatxo, eta zeñ gauza garbi, pollit eta apañak

dauden! Begira, begira gauzatxo oriek kolore zeñ txuri, urdin, gorri zoragarriak dituzten! Oriek loreak dira, ene laztana, esan zion amak, ara nola artuko ditudan zuretzat batzuek. Onako oek arrosak dira; begira zeñ gorri ederra daukaten: beste oek lirioak eta ara arropa zeñ ederrez jantziak dauden. Onako urdiñ au bioleta; onek ere usai txit gozoa du. Arritzatzu, diran guziak zuretzat dira, eta geiago nai badituzu, nai ainbat billitzatzu. Gero Jenobebak zelaitxo aren beste aldean zegoan baso batera eramanez, eta esan zion: Orañ adi zazu: eztezu aditzen? Arako aurrak aditu zuenean iñoren beldur-gabe beren kabitxoak egiñaz, pozez eta kontentuz beterik kantatzen ziarduten txoritxoek kanta-soñu zoragarria. Oh! deadar egin zuen, zer da nik aditzen dedan soñu txoragarri au? Soñu pozkarri oek zuhaitz eta sasi guzietatik datoz. Amatxo, au zer dan dakusgun: goazen. Jenobebak arri batean eseri, bere aurra magalean artu, eta, neguan eta udaberrian askotan egin zuen bezela, arkaitz baten gañean azitxo batzuek zabaldurik, txoritxoai deitu zion. Eziñ konta al eta geiago txori lasterka alkarren leian joan zitzaiozkan, eta

aziak billtzen asi ziran. Begira, esaten zion amak, txoritxo oek zeñ poliki kantatzen duten. Aurra pozaren indarrez beregandik irtena zegoan. O zuek, añ poliki kantatzen dezuten nere egaztitxo garbi politak, esan zien aurrak; zuek arako neguan añ garraski kantatzen zuten bele-zatar aiek baño askoz polikiago kantatzen dezute, eta aien aldean guziz politak zerate. Baña, esadazu, amatxo, nola daude orañ gauza guziak onen eder? Nondik etorri dira gauza polit oek guziok? Zergatik ni gaxo egon naizen garaian zelaitxo au onen ederki apaindu eziñ izan dezu? Seme maitea, esan zion Amak, len askotan esan dizut nola degun zeruan Aita bat txit ona. Aita maite bat, eguzkia, illargia, eta izarrak egin zituena. Bada guri onenbeste konsuelo ematen dizkiguten gauz oek guziok ere onetxek egiñak dira. Ai! Jaungoiko on maiteak, eranzun zion aurrak, eta zeñ guapoa dan! eta zeñ asko dakien! aur gaitz-gabearen esaera aiekin Jenobebari farrak irten zion. Urrengo goizean mutilltxoak goiz-asko esnatuta, amari esan zion: he, amatxo, jaiki zaitte, eta nerekiñ atoz. Goazen berriz ere Jaungoiko onak egin dituen gauz ederrak ikustera.

Jenobeba pozik jaiki, eta bere semetxoa artu, eta joan zan eguzkiak ederki berotzen zuen, eta egun gutxiz aurretik marubi batzuek ikusi zituen belardi batera. Egiaz ordurako marubi eldu, gorri eder asko zeuden.

Oek ere loreak dira? galdetu zion aurtxoak. Ez, ene laztana, eranzun zion amak, marubiak dira. Makurtu, ederrenak artu eta esan zion: Ea, aoa zabaldu eta lenengo aldiz proga itzatzu. Aurrak marrubi aiek jan zituenean, pozaren andiz bere eskutxoak alkarri estutuaz ziotsan: eta zeñ gozoak diran! Geiago ere artzen utziko didazu? Ar itzatzu, esan zion; baña bakarrik gorri eta polliten oriek. Bertatik abiatu zan al zitza-kean guziak bildu eta jaten. Ah zeñ ona dan, esan zuen, onelako gauz onak ematen dizkigun Jaungoiko maitea! Orañ eman giozkatzu bada eskerrak, esan zion amak. Aurrak bere farrak irrizko begiakin zeruronz begiratu, bere eskutxo-ai muñegin, eta alik deadar andiena egiñaz, esan zuen: Jaungoiko maitea milla esker marrubiakga-tik. Orduan galdetu zion amari: Jaungoikoak au ere aditu ote du? Jenobebak laztan gozo bat emanaz, eta farrak irten da, esan zion: Ondo,

guziz ondo aditu du Hitzik esan gabe ere Jaungoikoak ederki adituko zinduen. Jaungoikoak guzia ikusten, aditzen eta jakiten du.

Desdixadok egun bakoitzean gauza berriak ikusi nai zituzkean, eta gertatu zan gau hura guziz epel biguña, noizik beñ euri beraa eta urrena aize epela egiñaz, eta orra non osto berde utsa zeukaten arbol asko lore zuri-gorri-urdiñez ederki apainduta mutilltxoak ikusi zituen; eta gauz aiek guziak beñgoan ikusirik; beregandik irtenda amari galdetu zion: amatxo, eta Jaungoiko maiteak gau bakar onetan nola egin ditu gauz oek guziok? O aurra! eranzun zion amak, oek egitea Jainkoari ezer kosta etzaio: Jainkoak guzia beñgoan eta begien itxi-idiki batean egiñ zezakean, zeren guzia dezakeana dan. Baña aurrak ostera esaten zion: nola egiñ al zitezakean Jainkoak gauz oek guziok gauaz eta illunpean? Amak eranzun zion: Jaungoikoak añ ongi ikusten du gau illunpean, nola egunik argiengan; eta Desdixado miresturik geratu zan. Goiz batean Desdixadok pozaren andiz saltoka etorrita, esan zion: Amatxo, beste gauza pollit pollit bat ere topatu det: atoz, atoz eta ikusiko dezu zer dan. Eskutik

tiraka sas-arte batera eraman, eta esan zion: Begira an barruna, sas-artera, eztezu ikusten? Ene laztana, esan zion amak, ori txori-kabi bat, kardintxaren kabi bat da. Guk leize bat daukagun bezela, txoriak ere beren kabiak dauzkate. Begira an barrunen txoritxoari begi zeñ alaiaz begiratzen digun; orantxe dijoa egatzera: begira kabiari; baña kontu arantz oriek zula etzaitzaten. Begira nola kanpoko aldetik-belar izpi biguñakin eta barrundik berriz ille eta luma leunakin egiña dagoan. Begira ondo barruna. Ai, ai! onen pollita. Or barrunen dauden bost gauzatxo pollit oriek zer dira? Arrautzatxoak, esan zion amak; ikusiko dezu: egun guzietan onara etorrita begira zaiozu, baña ikuturik eta gaitzik egin gabe. Bigarren egunerako abiatu zan Amari eskutik tiraka, kabira eraman naiez. Arrautzen lekuan txoritxoak zeuden. Oh! begira, begira zeñ txiki eta beraak dauden; esaten zion Amak: begira nola oraindik itsu eta luma gabe dauden; nola oraindik eziñ egatu diran, eta kabitik irten ere eziñ diran. Ah txoro gaxoak, txiki pollit gaxoak, narrugorrian, ziotsan aurrak. Baña ta, otzak eta goseak hillko ez ditu? Jainko onak erakutsi die

txoriai beren umeak otzetik eta gosetik gordezten. Jenobeba gauz oek esaten zegokion garaian bertan txoritxoan ama mokadarekin kabiaren ertzera etorri zan, eta ume guziak aoa txabalik eta piauka berari begira jarri zitzaiozkan. Au ikusita, Desdixado guziz arritua eta beregandik irtena zegoan. Ai ta zeñ poliki ematen dien, eta pozaren indarrez saltoka zebillen. Begira, ziotsan amak, nola txoritxo oriek beren janariaren billan oraindik eziñ irten diralako beren amak dakaizkien azi oriek txoritxo oentzat gogorregiak diran, eta amak bere mokoarekin apurtu eta txeatzen dizten; eta biguñ ditezen bere paparora irentsi eta bereala umetxoai ematen dizten. Jainko onak au txit ondo egiñ eztu? Bai, alafede. Begira Jainko onak bere kreatura guziaz nolako naitasunaz begiratzen dien; eta baldiñ txori oriei onela begiratzen badie zenbat obeki begiratu eta kontu egingo eztigu guri. Bai, bai, esan zion aurrak: Jainko onak, Jainko maiteak idukiko du noski nere kontua; eta zu ere, amatxo, berak emana zaitut. Zuk ere txori onek bere umeak baño askoz maiteago nazu; zu izan

ezpazindudan, aspaldi hilla nintzan. Onela hitze-
giñ, eta bere Amari laztandu zitzaion.

AMAIKAGARREN BURUA

Jenobeba otso baten bidez bere gorputzaren estalgarri baten jabe egiten da

Atsegin-kontentu garbi askoren artean Jenobebarekin bere semeak udaberria eta uda igaro, eta eldu zan udazkena, eta eguzkiak kemen gutxiago idukitzeaz gañera, bere irteera beranduago eta sarrera goizago egiten zituen. Zerua geiengan goibeldua zegoan, eta lurak gauza berririk etzekarren. Egaztiak mututu, eta urrutietara aienatu ziran. Lore guziak igartu ziran, eta zuhaitz eta landareen ostoak oritu, eta berenez erortzen etziranak, aize otz gogorak dantzatuaz botatzen zituen. Neguaren kezkarrekin estuturik, Jenobeba leizearen atakan jarri, eta malkoak zerizkiola, inguruko basoi begira zegoan. Orduan Desdixadok esan zion: Ama, orañ Jainkoak ezgaitu maite, eta guzi guzia kentzen dijakigu; edo ta mundua aitzera dijoa... Ez, ez ene seme kutuna, eranzun zion Amak, onak geran

bitartean Jaungoikoak beti naiko digu: au ez da beste gauzarik ezpada emen lurrean gauza guziak aldakor eta aitzen diranak izatea; baña Jainko ona guretzat beti lena bera, eta betikoa da. Orain negua dator; baña neguaren ondoren udaberria etorriko da, eta onela urte oro izaten da. Negua alderatuaz datorren eran poztu zaite bada udaberriaren begira. Jenobeba egun aietan basoko udare, gaztañ, intxaur, sustrai eta neguan bearko zituen janariak bere semetxoarekin batera billtzen guziz arazotua zebillen. Basauntzarentzat bearko zuen belarra lendanaz bildu, eta txukuñki gorde eta ondu edo umotua zeukan. Janariak baño kezka eta pensabide geiago bere gorputzaren estalgarriak ematen zion. Urte guzi aietan gorputzetik kendu gabe gau eta egun zerabillen bere soñeko bakarra, guzia zaitu, eta ezertako etzala zeukan. Leizearen atakan negarrez jarrita, jostorraztat arantzak, eta aritzat zurmintz, eta aien izpiak artuaz, arropa-zatiaiek al zuen eran alkarri algañtzera saiatzen zan; baña alaere, alkarri eutsi ezin zioten. Ah, ixilltxorik, berekiko suspirio bat egiñaz, esan zuen: zenbat baño naiago nituzkean nik orain jostorrazt

bat ariarekin eta oial-puska batzuek! Desditxadok Amari nola zegoan igerrita, esan zion: Gogoratzen zatzu zer esan ziñidan arako zergatik basauntzari illea erortzen zitzaion galdetu nizunean? Orduan zuk esaten ziñidan, Jaungoikoak udaoro jantzi lasai gorri bat, eta gero neguan beste arre beroago bat ematen diozkala. Bera-gatik alai zaite; Jaungoikoak zuri ere emango dizu, ez etsi. Nere usteetan Jaungoikoak zu basauntza baño maiteago zaitu. Jenobebak farra-uxian aurrari laztan gozo bat emanaz, esan zion: Egia diozu seme maitea, alerik kezka-gabe egongo naiz: gure kontua jaungoikoak izango du: abere eta loreak jazten dituenak, ni ere jant-ziko nau.

Andik bi egunen burura mutilltxoari leizetik irtengabe egon zedilla, agindu, egur bat esku makillatzat artu, eta fruta geiagoren billan mortuan barrena joan zan. Igotzera zijoan mendi andi baten egatsean zerbait atsedeteko eserita zegoala, ikusi zuen nola goitik bera otsotzar izugarri bat aoan ardiarekin bereganonz zetorkion. Otsoa, Jenobeba ikusi zuenean, bere begi suzko-akin oni begira jarrita geratu zan: Hura ikusita,

Jenobeba laborriak artu zuen; baña laster beregandu, bere egurra artu, eta aoan zekarren ardi gaxoa kendu nairik, bere arekin otsoari eraso, eta bere indar guziaz kolpe portitz bat buruan eman zion. Otsoa ardia utzita, burua zorabiatu-rik, aldapak bera amilka joan, eta gero mendiak barrena orroaz aienatu zan. Jenobebak ardiari, bere ondoan ipiñi, eta bere onera erakarri naiez bere kalabazako esnetik aoan sartu zion, baña alperrik: alabañan ordurako hilla zegoan.

Abere gaxoa ala ikusteak biziro miñ eman zion. O abere gaxo gaitzgabea! ziotsan, zu ere nere etxealdeko toki zorioneko artatik irtena zera noski. Urte luze oetan ango berririk ez det. Ai bizirik bazeunde! Nola begiratu eta jaten emango nizukean! Nola nere Desdixado zurekin poztuko litzakean! Bearbada zu nere senarraren artalderen batekoa zera. O Jaungoikoa! deadar egin zuan, bai, alaxe zera, gure siñalea daukazu. Ai zu bizirik bazeunde eta gure hitzketa aditzen bazendu! galdetuko nizuke, ea nere senarra gerratik etorri zan; bere Jenobebaz oraindik oroi-tzen dan, oraindik nizaz aserre dagoan, edo kul-

pagabe naizela konturatu dan. Ah! hura ondasu-
netan igeri, eta ni emen miseriaz hilltzen!

Burutazio triste oek beñgoan utzi, eta beste-
ra pensatzen abiatu zan. Ni ezin geiago joango
naiz, zion, nere erri maitera, eta ementxe biziko
naiz, bai, Jaunak nai dezaneraño, bada juramen-
tu agiriko batek arako bideak isten dizkit. Jura-
mentu hura heriotzeko estura-larrian eragin
zidatela, allega nezake; baña juramentua onela
austea, on eta bidezko ez litzake. Nork daki nik
arako buruzpidea artuta, ara joatea niri bizia utzi
zidaten gizon biai berena kostako balitzaie ere?
Jainkoak mortu onetatik atera nai banau, egunen
batean gizon urrikaltsuren baten pausoak onara-
ño zuzenduko ditu. Gañera zer nai ez egoki era-
man obe da, konzienzia galdu baño. Orduan,
mendiak bera zetorren errekatxoan arri zorrotz
bat topatu, eta bere arekin ardi gajoari narrua
ideki, urtan garbitu, eguzkitan leortu, eta onekin
bere gorputza estali zuen. Berandu eta illunduta
bederi, onela leizera itzuli zan.

Desdixado or salto, emen brinko, urrutira
bidera irten, eta amari, ikusi zuenean, deadarka
asi zitzaion, esanaz: Ai amatxo! Noizbait emen

zeranean! Oh zenbat kezka eman didazun! Non izan zera? Baña arako len ez bezelako soñeko arekiñ ikusi zuenean, nola illun baitzegoan, bere ama etzuelakoan izutu, eta beñgoan sasartean gorde zan. Baña aditu zuenean amaren hitza, esanaz: ez izutu, ene seme, ni naiz; bere gordelekutik irten, lasterka beragana joan, eta esan zion: Jaunari eskerrak zu zeranean. Ai zer poza! baña esadazu, Ama, zer da soñean dakarzun ori? zu orañ ni bezela jantzia zatoz. Nola zereganatu dezu soñeko ori? Jainko maiteak eman dit, esan zion Amak. Ikusten dezu orañ nola nik esan nizona ala gertatu dan? Mutilltxoak narru hura eskuaz igortziaz, ziotsan: Zeñ ederra, zeñ zuri eta beroa dan...! Bai, bai, ezagun da zeruaren eskuerakutsia dala. Biak leizera sartu, eta ekarri ziozkan Amari Desdixadok kalabazan esnea eta zenbait fruta; eta soñeko hura nola beretu zuen, Amak kontatu zion.

Jenobeba eta bere semea negu gogorak berriz ere zulo artan sartuta utzi zituen. Bakarrik eguraldi ona zanean irten bat edo beste zelaitxora egiten zuten Desdixadok lo galanki egiñaz, gau guzia lo batean oi zerman; baña Jenobebak

bakarrik eta esna zulo illun artan ordu oso luzeak igaro bear izaten zituen. Ah esan oi zuen, nik orañ argitxo bat baneuka, zulo triste au alaitzeko! Eta baldin gañera baneuka liburu on bat edo liñoa eta linaia, zeñ ederki, zeñ nai erara denbora emango nukean! Nere erriko neskame eta serbitzaririk beartsuenak ere nik baño aisago daramate denbora. Aiek, orduak ordu suaren epelean jarrita ardatzean diardute; eta hitzket atsegiñean denbora erraz daramate. Baña bereala bere biotza Jaungoikoagana itzuli, eta esan zuen: O nere Jaungoiko maitea! zu ezpazinduzket, norekin hitzegiñ ez neukake; eta zu gabe leize illun onetan tristezak aspaldi hill ninduen, baña zuk zernai leku eta bizieretan zere konsue-loaz laguntzen diguzu. Bedeikatua izan zaite, bada, orañ eta beti zure ontasunagatik.

AMABIGARREN BURUA

Jenobeba mortuan gaxorik

Len igarotako uda ta negua bezela beste batzuek ere, zazpigarren neguraño, Jenobebak bere semearekin igaro zituen. Lenagoko neguak ainbesterañoakoak izan etziran, baña zazpigarren au guzizkoa izan zan.

Egin zuen guzizko elur bat, alakoa, non eta zuhaitzen besangak ere kargaren andiz autsi, eta lurreratu zituen; eta Jenobebak alik ongien itxi bazuen ere leizearen ataka, betiko elurraren elurrez eta aizearen indarrez elur asko barruna sartu, eta oetzat zeuzkan oroldioak eta leize guzia busti zitzaiozkan. Basauntz leialaren lurruna toki artako otz gogorra austeko, ezer gutxi izan. Azeriak sangaz zebilltzan, eta gauaz berriz otsoen antsia izugarriak baso guzi aiek airean zerabilzkiten. Jenobebak otzak kuxkulduta, gau osoak begirik itxigabe zeramazkien; eta bere semearekin bera otsoak puska zitzaten, beldur zan. Jaiotzetik otz-beroen artean, eta basoko janari zatarrakin arteraño azita zegoan Desditxa-

do otz guziak gatik ondo zegoan; baña Jenobebak, gela alfonbratuetan oitutako prinzesa minbera ark elur eta gelapeko biziera ari eziñ arpegi eman zion.

Oh! negarrari eman, eta deadar egiten zuen; su pixka bat zer zeruko erregaloea nukean nik orañ; baña ni basartean, egurra baizik ezdan tokian otzak hill bear nau! Bere arpegi ederra biziro ixuri, eta bere masallen gorritasun guzia galdurik, hillantzekoa jarri zan. Bere begi amoretsuai beren edertasuna galdu, eta begi biak garrondoraño sartu zitzaiozkan. Ai nere amatxo maitea! esan zion Desdixadak guziz estu eta larri, zer dirudizu orañ? Doi doi ezagutzen zaitut. O Jainkoa! Zer dau? Nere biotzeko laztana, esan zion amak, biziro gaizki nago, nola nai ere hilltzera noa... Hilltzera? esan zion aurrak, eta hilltzea zer da? Ori zer dan nere bizian aditu ez det. Ni loak artuko nau, esan zion Amak, eta geiago esnatuko ez naiz. Gorputz au lurraren gañean etzanik, oztu, gogortu, eta azkazalik ere mugitu algabe geratuko da, eta sekula geiago negarrik egingo eztu. Udaberria negua baño ederrago dan bezela, zerua lurra baño paregabe ederrago

da; eta oraindik udaberririk ederrena ere zerua-
ren edertasunaren aldean gau illun eta gogor bat
da. On eta errukitsu diran guziak egunen batean
ara igotzen dira. Amatxo, esan zion Desdixadok,
nik ere zurekin joan bear det: ni emen bakarrik,
eta zerbait galdetuarren erantzuten ez dakiten
abere oen artean eziñ gera niteke. Ni ere hillko
naiz... eta aragiaren soñeko zar onetatik erantzi-
ko naiz... Ez, ene biotzeko semea, esaten zion
Amak, zu oraindik munduan izan bear zera. Zu,
ondo bizi bazera, etorriko zera egunen batean
nigana zerura; zere zu ere egunen batean erre-
medio gabe hillko zeran. Baña oraindik adi zada-
zu esatera noakizuna. Baldiñ hitzegiten eztedala
jartzen banaiz; nere begiak argitasun gabe eta
guziz illunduak, eskuak otzak eta gogortuak
geratzen badira; iru egunen bururaño emen
egon zaite. Iru egun oien buruan, ni hilla naizela
seguru zeranean, zoaz mortu onetatik eguzki-
alderonz aspertu gabe. Egun bi edo iruan beti
joanta, topatuko dezu erribera andi, zabal eder
bat, non asko milla gizon bizi baitiran. Asko milla
gizon? eranzun zion arriturik Desdixadok.
Mundu onetan gu biok beste iñor bizi etzalakoan

nengoan ni, Amatxo, eta, zergatik lenago esan etzidazun au? Ah! zu hill bear ezpaziña, biok bereala an giñake... O ene seme gozoa! gizon oriek berak zu eta ni biok hill nai izan ginduzten. Orduan aiekgana joateko ametsik egiten ez tet, esan zion aurrak. Ni gizon oriek zu bezelakoak ziralakoan negoan, amatxo; baiña gizon oriek hill bearrak ez dira? Bai, alafede, esan zion Amak, gizon guziak dute hill-bearra. Ah! berak jakingo ez dute, nik orandaño ez nekien bezela, eranzun zion aurrak. Nik orañ diran guziaz deitu eta esango diet: zuek guziok hill bearrak zerate, izan zaitzte on, ezperen zerura joango etzerate: eta berak sinistuko naute noski. Amak esan zion: o aurrak! ori guzia aspaldi dakite, eta guziaz ere obetzen ez dira. Nai ainbat gauzen erdian bizi dira; lurrak emen alakorik ez bezelako frutuak ugari eta oparo ematen dizte; guk baño janari obeak dauzkate; emen ikusten diran loreen kolore guzietako soñekoak darabilzkite: beren bizilekuak berriz nik adirazi eziñ degizkitzuketan bezelakoak dira: gañera badaukate beren bizilekuetan negurako eguzkiaren gisa argi egiñ eta berak bezela berotzen duen gauza bat ere. Ala-

bañan gizon orietako geienak mesede oiekgatik Jainko onari eskerrik ez diote: alkar gorrotatzen, penatzen eta alkarri gaitz egiten bizi dira: Batzuek edo besteak or-emen egun oro hilltzen dira, eta guziaz ere gañerakoai onek mellaren izpirik eragiten ez tie; eta beti emen lurrean izan bear balira bezela, bizi dira... Orañ esan zuen Desdixadok, orañ gogo gutxiago daukat gizon orien artera joateko, bada gizonak otsoa bezañ gaiztoak, eta guk diogun ezer aditzen eztuen basauntz au bezañ burugabe eta ezjakiñak dira. Nik gizon orien janarien gutziarik ez daukat, eta ementxe abereen artean janaz naiago det bizi. Oek, otso gaiztoaz osterontzekoak alkarren artean pakean eta kontentuz bizi dira, eta iñori gaitzik egin gabe, belar eta ostoakin janaritzen dira. Ementxe oekin geratuko naiz, eta gizonetara joango ez naiz. Guziaz ere, aur maitea, esan zion Amak, zuk gizonakgana joan bear dezu; zuri gaitzik egingo ez dizute; baña begira: zeruko zure Aita onaz-ezpada, orañdaño hitzegiñ ez dizut: baña orañ esan bear dizut, emen lurrean ere badezula Aita bat, ama dezun bezela. Lurrean? aurrak konsueloz beterik eranzun zion:

nik lurrean Aita, zu bezela dakuskedana? Bai, aur maitea, esan zion Amak, zuk ikusiko dezu bera, eta berarekin hitzegingo dezu. Nik bera ikusi, eta berarekin hitzegiñ? aurrak deadar egin zuen, eta pozaren indarrez begi biak irten nai zitzaizkan. Baña pensatzen pixkatxo bat egonta, esan zion: Nola ez dator bada onara, eta nola gu mortu onetan gauden bezañ beartsu uzten gaitu? Bera ere beste gizon gaizto aien antzekoren bat ote da? Ez, ene laztana, esan zion Amak, orrenbat baño gizon on eta prestuagoa da. Ark ez daki gu mortu onetan gaudela; ezta bizi geranik ere. Gu biok aspaldi hill ginduztelakoan dago, eta ni munduan dan amarik gaiztoena naizela, uste du. Gizon gaiztoak onelako gezur batekin engañatu zuten. Eta, gezurra zer da? galdetu zion aurrak; zer dan nik ez dakit. Gezurra esatea da, gauza bat pensatu edo uste, eta beste bat esatea. Gizonak alkarri diotsate, konturako, alkar maite dutela, eta alkar ikusi ezin dute. Onixe deritza gezurra. Eta au onela gertatzen da? esan zion mutilltxoak arriturik. Nik orrelakorik sekula egin naiko ez nuke. O gizonak, o gizonak, deadar egin zuen: ondo tresnak zerate!

Bada zure Aita onelaxe engañatu zuten, Amak orduan esan zion: eta bere gertakari guziak aurrak adi zitzakean eran kontatu ondoan, esan zion: begira nik beatzean daukadan erraztun oni; au zure Aitak emana det. Nere Aitarena da? aurrak pozez zorutzen deadar egin zuen; Ah! utzi gidazu erraztun ori ondo ikusten. Zeruko nere Aitaren gauz asko ikusi ditut, eguzkia, illargia, loreak, marrubiak, txoriak... baña lurreko nere Aitaren gauzarik egundaño ikusi ez nuen. Jenobebak bere beatzetik aterata, bere erraztuna mutilltxoari eman zion. Ai ta zeñ pollita dan! esan zuen onek: baldiñ nere Aitak onelako gauza pollit asko baditu, niri ere batzuek emango ez dizkit? Bai noski, eranzun zion Amak: eta bere erraztuna ostera beatzean sartu zuen. Ni hilltzen banaiz, esan zion Amak: erraztun au beatzetik atera zadazu; baña arteraño utzi nai ez tet, baizik hill nadineraño nere beatzean gorde nai det, nik zure Aitari hill arterañoako amore eta leialtasuna gorde diodan bezela. Oh! zure Aitaganako nere amorea garbia, guziz garbia izan da, erraztun onen urrea bezela! Gero zu gizonakgana zoazenean, ene laztana, galde zazu Sigifredo Kondeaz,

bada bera da zure Aita. Erregu zaiezu gizonai, eramán zaitzátela beragana; baña zu zeñ edo nor zeran iñori ere ez esan; añ gutxi nondik zoazen, eta Kondea zertako bear dezun. Erraztun au ere ez iñori agertu. Gero, zere Aita Kondearen aurrean jarri zaiteanean, erraztun au berari emanta, esaiozu: Aita, erraztun au nere Amak bialtzen dizu, ni zure semea naizen siñale eta agiritzat. Oraindik egun gutxiz onuntz hill da, guziaz ere, bere azken-agurra egiñaz, nere bidez esaten dizu: bera kulpa-gabea, garbi eta leial izan zala; baña orregatik ere zure gaizkia barkatzen dizula: berriz zeruan ikusi usten zaituela, emen munduan ikusi ezin zaitzakeanez geroz. Agindu dit, esan degizudala, ezen gauz on asko egiñaz bizi zaiteala, alai zaiteala, argatik negarrik egiñ ez dezazula, eta ni ondo artuaz azzinazazula. Ene biotzeko semea, etzaite aztu esateaz, nik kulparik ez nuela, eta fiñ eta leial izan nitzaiola. Gauz oek guziok hilltzeko zorian zuri esan eta bereala hill nitzala. Baña au guzia segurantzaz osoarekin esan bear diozu. Gañera esaiozu, heriotzeko orduan ere maite nuela, zu maite zaitudan bezela. Gero konta zaiozu ni mortu one-

tan nola bizi izan naizen eta nola hill naizen. Nere aldetik erregu zaiozu gañera, nere gorputza leize onetatik atera, eta nere aurrekoai eman zitzaien lurrean sar dezala, bada ni ez naiz izan gizonak uste duten eta aintzakotzat iduki nauten bezela aien tresonragarri eta eliz-lurrik merezi eztedan bat. Eta oraindik esan bear dizut zuk eztakizun gauzatxo bat: zuk lurrean Aita bat eta Ama bat dauzkatzun bezela nik ere badauzkat nereak. Ay nere Jaungoiko maitea! Ez dakit bizi ote diran, kulpa gabe nik eman nien naigabearen ondoren! Baña baldin oraindik bizi badira, zure Aitari erregu zaiozu berakgana eraman zaitzala. Oh! baldiñ zu ikusten bazaituzte, guziz poztuko dira, eta zazpi urte oetako naigabe-penak aztuko zaizte. Gero; ah! hitzegitera zijoan, baña begietatik zerizkion bi iturriak galerazten zioten: ah zu nere Aita ona, zure biotza nigatik asko samurtuko da noski! Eta zu nere Ama maitea! zuk ere zere Jenobebaz negar erruz egingo dezu. Au nere guraso biotzekoak! zenbat baño naiago nukean hill nadiñ baño len beñ bederik zuen arpegiak ikustea! Ah! zuek ere oraindik bizi naitzela baziñekite, beñ bakarrik bederik ni ikusteko

zalez igartzen egongo zĩñateke! Ordea ai, nere gorputza aspaldian ere basa-bazterren batean deseginda dagoelakoan zaute. Oh zeñ pozkarria dan zuek berriz zeruan ikusteko esperanza! Kon-suelo au gabe mundu onetako neke-penak pisuegiak lirake, eta nolana ere beren indarrez gu, kreatura ezerezok, ernegatuko giñake. Negarrez zaude, aur maitea? Barka zadazu orrenbesterañoko estubidea nik emana. Adi zazu: zu orañ ama gabe geratzen bazera ere, amaren orde z Aita on bat Jainkoak or ematen dizu. Beragatik ez negarrik egiñ gaxorrek, nere seme laztana, bada zure Aitak biziro maiteko zaitu, musu emango dizu, bere belaunetan artuko zaitu; semearen izenaz deituko dizu, eta nitzaz eta nere pena eta eramankizunaz galde asko egingo dizkitzu. Negarrak estututa, Jenobebak ezin geiago hitzegiñ al izan zuen, eta kemen guziak galdu eta auldurik, oroldiozko bere etzauntzaren gañera erori, eta luzaroan hitzegiteko gai izan etzan.

AMAIRUGARREN BURUA

Jenobeba heriotzerako prestatzen da

Otz gogor hura zerbait bigundu zan, aize epel eta biguñago bat irten zan, leizearen barrunbera eguzki goxoa sartuta zulo triste hura apur bat berotu zan. Añ luzaroan leizearen barrungo arkaitzetatik zinzilik zeuden gela-burruntziak urtu, eta erortzen asi ziran; baña Jenobebaren gaitza aurreratuz zijoan; eta triste ark bere iritzian laster zetorkion herioa besterik bere begiren aurrean etzekusan. Egurrezko gurutze hura bere etzauntzera jatxierazo, eta hilltzeko prestatu zan.

Ah! esaten zuen, nere azken-arnasetan bere hitzaz konsola nazakean, eta betiko bidaje luzerako indartzeko Jaun Sakramentatua ekar degikedan Apaiz bat ez daukat! Baña zu, Jauna, Apaiz guziz andi eta betikoa, leku onetan ere nerekin emen zaude, naigabe, pena eta traba-juak onez daramazkiten guziakin zaude: zure amorez padezitzen, eta zure zalez daudenen bio-

tzak zuk bisitatzen dituzu. Onela hitzeginta bereala bere eskuak tolestu, eta aldi batean orazioan egon zan.

Desdixadok egun guziak ezezik, neguko gau luzeak ere, argiaren arrazarik gabe bere Amaren ondoan igarotzen zituen, eta mutill gaxoari jaterik eta edaterik gogora etzetorkion. Ama gajoari berak al zezakean amore, eta arreta guziaz begiratzen zion. Oroldio zati batzuek eskuetan artu, eta leize-barruko arkaitzak, iritxi al zezakean tokiraño, bere aiekin leortzen zituen, bere Ama gaxoaren gañera ur tantoak erori etzitezzen. Zuhaitz zar, eta arkaitz-arte guzietatik oroldio leor billa an zebillen, bere Amari etzauntza bustia kendu, eta leorrigo bat ipintzeko. Orañ ekartzzen zion iturritik kalabazean ur preskoa, eta ematen zion esanaz: amatxo, edango etzenduke? Berotasun aundia daukazu, eta ezpañak txit leorrak dauzkatzu. Aurki ipintzen zion Amari aurrean beste kalabaza batean esnea, esanaz: edazu, Ama maitea, guziz ederra dago, orañtxe getzi det... Gero bere Amari beso biakin lepotik itsatsi, eta esaten zion: Ai ama, ama maitea, ai

ni banego gaxo zure ordez, edo zugatik hill al banedi!

Goiz batean bi orduko lo gozo eta soseguzko baten ondoren esnatu, eta Jenobeba len baño agitz beroago eta sendoago sentitu zan. Lotan zegoen garaian, beti berekin zeukan gurutzea, eskutik erori zitzaion, eta esnatu zanean, bere aren billan abiatu zan; eta zer nai zukean igerrita, Desdixadak bereala eskuetan ipiñi zion. Baña, Amatxo, orduan esan zion: zer egiten dezu egur-puska oriek eskuetan artuta? Ene laztana, eranzun zion: nik luzaroago bizi uste nuen, eta au zer dan, orregatik ez dizut esan lenago; baña gauz ona gerorako utzi bear eztala, orañ ezagutzen det. Esan izan dizut nola Zeruko Aitak ere baduen Seme bat, berarekin guzian berdiña; baña oraindik esan ez dizut, Seme onek gure amorez egin zuen guzia. Gauz oietakorik zuk enzun edo igerriko etzenduen, zeren zu orandaño koan mortuan mundu guziagandik guziz urrutiti azi zeran. Baña orañ dakizunez gero munduan gizon geiago ere badirala, eta gizon oriek zer egiten duten aditu dezun ezkerro, eta zerorrek ere igerrit dezazukean ezkerro ni hilltzera noala,

saiatuko naiz Jaungoikoaren Semearen kondaira zuri erakustera. Orduan ezagutuko dezu ere emen eskuetan darabildan egur onek zer adirazten duen. Adi zazu, bada, zintzo, orañ esatera noakizuna, eta gorde itzatzu buruan ondo zere Amaren hitzak.

Jakizu, bada, Zeruko Aita maiteak guziz miñ zuela gizonak añ gaiztoak izateaz, eta beragatik añ zorigaiztokoak, non, hill eta gero Zeruan sartzen eziñ utzi zegikien. Orduan bialdu zuen gizonakgana bere Seme maitea, gizonen artean ibilli, eta oek ondu zitzan. Seme maite au Aita bera bezañ ona eta Aitak ainbat eskubide zeukana zan. Seme au gure leizezulo onen gisako batean jaio zan: gero azitakoan, eremu au baño ere izugarriago batean beti erregutzen egon zan, berak gizonai esan nai ziena, eta gizonen onerako egin nai zuena alperrik izan etzitezzen. Orduan gizonakgana joan, eta aditzera eman zien, nola bera Zeruko Aitak bialdua zan; Zeruko Aita guziz ona zala, eta Aita onek berai asko nai ziela: gizon guziak Aita onen semeak zirala, eta beragatik, guziak ondu zitezela, eta Aita on au maita zezatela; eta berak ere alkar maita zezatela. Semea

enzuten duenak eta ondutzen danak, egunen batean Zerura joan eta izango dituela atseginkontentu andi zoragarriak; baña bera enzuten eta berari jarraitzen ezdiona, zeruan sartuko ezuala, eta leku izugarri gaizto batera joango dala. Baña gizonak sinistu nai izan etzioten bera zeruko Aitaren Semea zanik, eta zeruko Aitak bialdua zanik, au guzia berak bere egiñakin eziñ obeto agertu zielarik.

Ni bezela Ama bat, baña ni baño zarxeagoa, zegoan beñ batean nere gisa gaxo, eta nik daukadan berotasun au bezañ gaiztoarekin. Iñork ezerekin sendatu ezin zuen; baña Jesukristok, nik orañ eltzen dizudan bezela, eskutik eldu eta beñgoan sendatua eta len bezañ zuri-gorri eta eder utzi zuen Beste batean zu baño azixeagoko seme bat hill zan, eta bakarrik zu zaitudan bezela, aren Amak ere hura beste aurrik etzuen. Ama triste au Jesukristogana negarrez nola joango zan, pensa dezazuke. Baña Jainkoaren Semeak Ama gajo oni gozotasun guziaz esan zion: ez negarrik egiñ; eta hillaren gorputzari berriz esan zion: Jaiki zaite eta berealaxe biztu eta jaiki zan.

Jaungoikoaren Semeak gazte au bere Amari eram-
man, eta au eziñ geiagoraño poztu zan.

Gauz oek eta oen gisako beste asko egiñ
zituelarik, Jesukristo Jaungoikoaren Seme, eta
Zeruko Aitak mundura bialdua zala, gizonak eziñ
irentsi zuten. Gaiztoak zirala, eta ondu zitezela
berai beti esatea, eziñ eramán zuten. Orduan
egur andi bi, nik orañ eskuetan dauzkadan txiki
oen gisara josita, illtze andiakín, au da, arantzen
gisako, baña arantzak baño askoz andi eta gogo-
rrago diran gauza batzuekin Jaungoikoaren
Semea egur edo gurutze ari bere oñ-eskuetatik
josi zioten. An hill zan ixekirik, odola zeriola.
Baña oraindik hill baño len burla, ixeka, siñu eta
farra asko egin ziozkaten; berak iñori ere gaitzik
ez, baña bera billatzen zuten guziai on asko egi-
ten zielarik. Oh! gizon gaizto gorrotagarriak,
deadar egin zuen Desdixadok, eta, Zeruko Aitak
au guzia sufritu zien? Eta bere tximista eta
arraioak gizonai bialdu etzizten? Nik aren lekuan
egotera, ziran guziak erre eta kiskaliko nituen.
Seme maitea, eranzun zion Amak, au egitearen
lekuan gizon berakgatik bere Aitari erregutu
zion, esanaz: Aita, barka zaiezu, bada zer egiten

duten ez dakite. Bai, bera gizonen amarez, gizon guzien amarez, gizon gaizto aien beren amarez hill zan. Alaxe egin bear zan, ene laztana, ezpe-
ren iñor ere zerurako etzan; ezta zu eta ni ere; eta ala Jesukristok bere bizia zure eta nere amo-
rez ere orobat eman zuen.

Orduan aur koitadua geratu zan eserita zego-
an lekuan arri eta zur egiñik, bere begietatik malko samiñak mara mara zerizkiola; bada nola gauz aiek lenengo aldiz aditzen baizituen, biziro mella andia egin zioten. O Jaungoikoaren Seme ona! bere soñeko narruaz malkoak leortuaz zion; baña, eta orañ ere zeruan dago? Bai, enetxoa, eranzun zion Amak. Aren gorputza orduan gera-
tu zan hilla, izan zan ipiñia ar-zulo batean, eta zulo aren sarrera arri andi batez estalia; baña jakin bear dezu ezen iru egun igaro baño len irten zala bizirik zulo artatik kanpora. Ala ere gizon banaka batzuek beste gañerakoak baño obeak ziran; eta oek Jaungoikoaren Semea enzun, eta ondu ziran. Oek naitasun andia artu zioten, eta bere heriotzaz negar samiñak egin zituzten. Biztu zanean, oiei agertu zitzaien, eta berriz bizirik ikusi zutenean, guzizko poza artu

zuten. Baña Jainkoaren Semeak berak esan zien: bere Aitagana Zerura joan bear zuela, eta au adituta biziro goibeldu ziran; baña berak esan zien: ez negarrik egiñ, eta etzaitezte estutu geiegi; begira an gora nere Aita dagoan tokira; zuentzat ere bear ainbat toki an bada. Orañ araxe noa, zuek zoazteneraño zuentzat lekua prestatzera: nik esan eta erakutsi dizutedana egizute, eta egunen batean guziok ara nere ondora etorriko zerate. Berriz ikusiko zaituet, eta orduan zuen atsegiñ-kontentua oso, betea, eta iñork ezin kenduko dizutena izango da. Orduan bere bedeikazioa guzien gañera bota, eta abiatu zan ezarian zeruronz igotzen, eta igoaz zijoan bezela, odei eder argitsu batek begietatik galdu zien. Ah eta zeñ ikuskarri ederra izango zan au! esan zuen aurrak: baña orañ ere gure berri bai aldaki? Gu mortu onetan bizi gerala badaki? Eta guk ere egunen batean bera ikusiko degu? Bai, seme, esan zion Amak; ark non-nai ikusten gaitu, eta non-nai gu gauden tokian, beti gurekin dago: maite gaitu, gauz onerako gogoak ematen dizki-gu, eta on izaten laguntzen digu. Ene maitea, zu orañ aur on bat zera; baña bear bezañ ona orain-

dik etzera. Arretaz begiratzan badezu, gauz oni zerorrek puntuan beñ antzemango diozu. Begira, nola nai ere zuk etzenduen erregutuko gizonak-gatik, Jaungoikoaren Semeak bezela, baldin gizon oriek berok hilltzen bazerabilzkite. Aserre artan esan zenduen, ark bezela al izatera ziran guziak erre eta kiskaliko ziñituzkeala. Bada orañ ikusten dezu, Jaungoikoaren Semearen antzeko etzerala, eta ark ainbat amore ezezik gutxiago ere ez daukazula; baña aren gisara izan bear gera, eta guziaz nai bear diegu, baldin bere Aitari eta berari gusto egingo badiegu, eta egunen batean zeruan sartu nai badegu. Onetarako mundura zan, eta gugatik gurutzean hill zan. Eta orañ, nere biotzeko laztana, ezagutzen dezu zergatik daukadan beti eskuan gurutze au? Onek gogoraerazitzen digu gugatik ainbeste eraman eta gurutzean hill zan aren guganako onginaia; adirazten digu, nola guk ere neke-trabaju eta eriotzaren bidez zerura joan bear degun; eta beragatik daukagu aiñ maite siñale au.

Ah, ene seme maite! esan zion: nik ezdaukat gurutze au ezpada nizaz gogoratzeko eman al negizukedan gauzarik; baña ni hilldakoan, nere

esku otz gogortuetatik atera, eta ondo gorde zazu. Zu egunen batean andi eta aberats ikusi zaiteanean, etzaite lotsatu zere Amaren oroipengarri pobre au zure jauregi andiak daukan lekurik ederrenean ipintzeaz. Gurutze au ikusten dezun aldi bakoitzean eta guzietan gogora zazu zure amorez gurutze batean hill zan hura; eta orañ gurutze au eskuetan daukala hilltzen dagan, zure Ama. Saia zaite beti on eta urrikaltsu izatera; garbi eta gaitz gabe gizonak amatzera, guziaz on egitera, eta, ala bear balitz, berakgatik bizia ematera ere; baña jakiñaren gañean ezen, ez dizutela izango bear bezelako esker eta ezaquera. Baldin gurutze au ikusteak gauz oek guziok egiteko gogoaz emateaz gañera, eragiten ere badizkitzu, zure Amaren erregalo triste au zuretzat askoz eta pare gabe andi eta ohea izango da, zere Aitagandik izango dituzun ondasun andi guziak baño.

Jenobeba bere sermoi luze onen ondoren añ aunatua eta aitua geratu zan, non osteria ixildu, eta zerbait atsedeen-bear izan zuen. Ah, asi zan berriz, denbora pixka baten burura: ai zure Aitagana iristeko suerte zorionekoa bazendu! Baña

ara arteko bidea mortu onetan barrena, baso eta sasi izugarri oien artetik, arkaitz-arte orietan igoaz eta jatxiaz, aur biguñ orrentzat perill eta arrisku andikoa da. Guziaz ere Jaungoikoak lagunduko dizu ezegoki gabe eta ondo iritxi zaiten. Arritzatzu zerekiñ aztu gabe kalabaza bi esne, bidean goseak hill etzaitzan, eta arako makilla hura, piztia gaiztoetatik zere burua gorde dezazun. Oh aur gaxoa! zu oraindik guziz biguñ eta ezereza zera; baña Jaungoikoak gordeko zaitu piztia gaiztoen erasoetatik: Jaungoikoagan bere ustea daukana, seguru dabill.

Illundu zanean, laster aurreratu zan geiago eta geiago Jenobebaren gaitza; eta arnasak añ neke andia ematen zion, non izerdi irazeki batek artu zuen. Orduan nolabait eseri, arpegi triste naigabetu eta semea izutzerañokoarekin oni begira jarri, eta ozta esan al izan zion: Desditxada, jarri zaite belauniko. Nere iritzian orantxe da nere azkena... Aur gajoa negarrez belaunikatu, eta tristeak bere burua makurtu, eta jaierarik andienaz bere eskutxoak gora jaso zituen. Jenobebak bereak mutilltxoaren buru-gañean ezarri, eta esan zion: Jainkoak bedeika zaitzala, ene

seme, eta Jesukristo zurekin izan dedilla, eta Espiritu Santuak zuzen zaitzala, gizon on izan zaitean, inoiz ere gauza gaiztorik egiñ ez dezazun, eta nik berriz ere zeruan zu ikusteko suerte zorionekoa izan dezadan.

Orduan bere gurutzeaz ziñatu, eta mutilltxo-ari laztandu zitzaion, musu eman zion, eta oraindik esan zion: Oh ene semea! Orañ gizonetara bazoaz, aien ejemplo gaiztoa ikusiarren, ez zu gaiztotu; eta egunen batean ondasun eta era andien erdian biziagatik, ez aztu zere Ama gaxoaz. Ah! baldiñ zu nere amore onezaz, nere malko oezaz, nere hitz oezaz, azken-arnasetan dagoan zure Amaren hitz oezaz noizbait aztuko baziña, etziñake etorriko, ez alafede, nigana zeruko gloriara. Eziñ geiago hitzegiñ al izan zuen. Berriz ere guziz auldu, bere etzauntzera erori, eta begiak itxita geratu zan. Desdixadak etzekien hilla ote, edo lo zegoen. Gizagaxoa, bada, bere Amaren ondoan belauniko jarrita, negarrez urtzen an zegoan, orazio au egiñaz: O Jaungoikoa! arren ere ez hill. O Jaungoiko maitea! arren ere esna zazu.

AMALUGARREN BURUA

Bere esposa Jenobebagatik

Sigifredo Kondearen

pena eta naigabeak

Goloren gezurrezko asmazioak zirala bide heriotzeko epai negargarri hura bere aserrear eman zuenetik laster gerran artu zuen herida bategatik oatua geratu bear izan zuen Sigifredok. Wolfio maiordomo eta serbitzari fiñ leiala garai artan andik urruti arkitzen bazan ere, bere nagusiaren gaitzegokia jakin zuenean, lasterka etorri, eta zer gertatzen ote zitzaion ikastera joan zitzaion. Bera urrutietan ibilli zan bizkitartean igaro zitzaion guzia nagusiak kontatu zion; eta serbitzari zar prestu onek gauz aiek aditu ez al zizkan, bere arpegiko kolore guziak galdu, gorpuz guziko izu-ikara laborriak artu, eta estutasunaren indarrez ito-bearrean eta hitzik eziñ asmatuaz, esan zion: Ai nere nagusi maitea! zer egin dezu arren? Zure esposa bezañ biotz oneko persona bat, bera bezañ ongi azitako alaba bat

orren laster gaiztotzen ezta. Nik au ondo dakit. Zure Golo gaizto eta billaua da, barka zadazu nere esateko modu au. Gizon onek betiko bere lausenga eta hitz leunakin zure biotza irabazia daukala, ondo dakit; baña sinis nazazu ere beti zu alabatzen dagokizuna eta ezertan beñere kontrarik egin gabe beti zuri arrazoia uzten dizuna, zure etsaia dala. Onek bere barrunbean zu despreziatuaz, bakarrik bere protxua billatzen du; baña kontrara, egia esaten dizuna, zuk nai bezela beti hitzegiten ez dizuna, orixe da zure adiskidea, eta zu ziñez maite zaituena. Adi nazazu, nere nagusi biotzekoa, eta zere aserrean eta itsumustuan eman dezun epaia berealaxe urratu eta desegiñ zazu. Jainko santua! eta zer da nere nagusi onari gertatzen zaiona! Zere menpekorik txiki eta azkenekoena ere enzun gabe heriotzera ematea, utsegite guzizkotzat idukiko zenduke noski; eta orañ bada arren, zere Esposa ona aditu gabe sentenziatu dezun? izan zaite noiz edo noiz zere aserre orren jabe. Zenbat bider izan ez dezun damutu-bearra? Baña beldur txit beldur naiz oraingoan zure aserreak gaitzegoki izugarriren bat erakarri bear dizula.

Kondeak bere utsegiña aitortu zuen; baña errua bere esposa Jenobebak ote, edo bere serbitzari Golok zuen, oraindik zalantzan zegoan; bada Goloren karta añ itxurazkoa, añ engañagarria zan, eta karta arekin bialdu zuen mandataria añ falso eta gezur-apañtzallea, non Konde giza-zajoa zer pensatu, eta zer egiñ etzekienean geratu zan. Guziaz ere bialdu zion Golori Kondeak bereala mandatari bat, bera etxera zedineraino Jenobeba bere gelan itxirik iduki zezala, baña gaitzik egin gabe, aginduaz. Mandatari oni bere zaldirik azkarrena eman, eta agindu zion, al zezakean agudo eta lasterren zijoala. Gañera esan zion: baldiñ mugonez iristen bazera, eta berri onak badakaizkidatzu, oparo pagatuko zaitut.

Mandataria agertu zanerañ Kondea egunetik egunera zijoan tristeagotuaz. Aldi batzuetan Jenobebak alako gauzarik egiñ etzuelakoan zegoan, eta beste batzuetan berriz, ainbeste bat on eta mesede beragandik artu zituen Golok alako gezurrezko asmazioak ezin egin zegizkiolakoan; eta onetan bere biotza zalantzan, iritzi eta errezelo garratz oek estututa, tormentuz

betea zeukan. Gutxienaz egunean amar bider bialtzen zuen bere serbitzari leial Wolfio mandataria agiri ote zan ikustera, eta gauetan lorik iñola ere etzetorkion. Noizbait bearta, mandataria etorri zan, baña, ai! Kondeak agindu bezela, Jenobeba bere semearekin mortuan gauetz hill zutelako albiste negargarriarekin! Konde gajoa arri eta zur eginda geratu zan, eta bere buruaren kontrako epaia eman balu bezela, larritu, eta illuntasun izugarri batek artu zuen. Wolfio zar leiala negarrez eta marruaz etxetik irten, eta Kondearen oe-aurrera etorrita zeuden zaldun guziak juramentu egin zuten, beren errira zitezzen bezañ laster Golo bere atzaparren artean puskatuko zutela.

Kondea gaizki zegoan: urte beteren buruan ere bere gaizki-egiñaren barrungo naigabe, kezka eta arrak bere herida sendatzen uzten etzion. Baña zerbait zuzpertz zan bezañ laster bere etxera itzultzeko baimena Erregeari eskatu, eta nola moroak igesegin baizuten, Erregeak bere baiezkoa eman zion. Kondea bere Wolfio eta gañerako lagunakin bere errironz irten zan. Illuntze batean, ez goiz, bere Kondaduko lenen-

go alde-errira iritxi, eta jende on aiek, ala gizon, nola emakume, eta aurretarañoko guziak bidera irten, eta negarrez ziotsaten: Ai gure Jaun maittea! zer ezegoki izugarria! Ai gure Andre Kondea on maitagarria! Ai Golo gaizto madarikatua! Kondeak zalditik jatxi, bere eskua guziaz luzatu, eta biguntasunik andienaz hitzegiñaz, galdetu zien: ea bera arrotz ibilli zan bitartean aren etxean zer igaro zan? bada orduan Kondesagatik ona besterik aditzen etzuela: Goloz añ gaizki hitzegiten zioten denbora berean. Guziz estutu eta atsekabeturik, ostera bere zaldira igo zan, gau artan bertan bere jauregira iristeko deseoz. Txit urrutitik ikusi zituen jauregiko leio guzietatik irteten ziran argiak; eta aldera zanean musika-soñu eta iskanbilla andiak aditu zituen. Golo bere adiskide guziaz gonbit andi bat ematen ziar-dun; bada Kondea bere herida portitzetatik hillko zala, seguru zegoan. Gañera nola Kondeak bere ondasunen jabegai bidezkorik ezbaitzuen aren ondasun guziaz Jaun eta jabe bera egiteko asmo osoan zegoan; eta uste onekin kanta, musika, festa eta jostaketan bidez bere konzienzi galdua-ren imurtzi eta kezka ayenatzera al guziaz

sayatzen zan. Baña arrotzar au maipuruan jarri zanean, maia serbitzen zebilltzanak alkarri zio-tsaten: Baldiñ gure Konde Jauna hilltzen bada, Golo asko-jakin tranpatsu au gauza guzien jabe eta gure Jaun eta buru egingo bide dek; baño guziaz ere orren naurruan egon nai ez nitek. Ikusten ez dek, zeñ urtuaz, igartuaz eta erkituaz dijoan? Egia diok, eranzuten zuen beste batek: orrek poz egiazkorik etzeukak, eta orri ezerk atsegiñik ematen etziok. Or zeagok eserita, urkatzeko dagoan tristea bere azkeneko bazkarian bere borreroarekin egon oi dan bezela: orren lekuan egon nai ez nitek; beste munduan begira dagokion suertea neretzat nai ez nitek.

Kondeak, bere jauregiko atarira zanean, bere etorreraren siñalea jo zezala, tronpetari bati agindu zion: siñale au adituta gazteluko tronpetariak bere tronpetarekin eranzun zion. Golo eta gonbidatu guziak asaldatu, eta izu-zaparrean maitik altxa ziran, eta Kondea, Kondea, gure Kondea besterik alde guzietatik aditzen etzan. Kondea etorrita baño herioa bera etorri balitzaio ere gutxiago larrituko zan Golok ere lasterka jatxita humilltasun guziaz Kondearen zaldiari bri-

datik eldu zion. Kondea guziz illun eta begi zorrotzakin, hitzik ere atera gabe, begira jarri zitzaion; eta Golo kolore guziak galdua, gaitzgille batek bere Juezaren aurrean baño ikara andiagoa egiñaz, geratu zan. Bere begietan, arpegian eta gorputz guziko ikaran bere konzienzia galdua argiro agiri zitzaion. Oña doi doi aldatuaz, eta eskuan zeraman argia ozta eramanez, bere nagusiaren aurretik nolabait eskallerak igo zituen. Kondeak etxe guzitik etzuen arkitzen, galera, naspilla eta ondamendia baizik, eta nondik-nai arpegi izutu, eta ezagutzen etzituenak besterik etzetorkion; eta oraindik an zirauten lengo serbitzari banakak, begietatik malkoak zeriztela, bere ongietorria egin zioten. Kondeak, gerrako bere soñekoetatik erantzi zanean, Golori giltza guziak eskatu, eta onek iges egiñ etzezan, bideak ar zitzala Wolfiori agindu; eta oek eta onelako beste eginkizunak egindakoa, bakoitza bere oiera zijoazela agindu zien. Kondearen lenego pausoak Jenobebaren gelara zuzendu ziran. Jenobeba preso sartua zanez geroz, Golok gela au itxia, eta iñor ere sartzen etzala zeukan; eta bera ere geroztik an sartu

etzan; alabañan ara sartzeko gogoetarik bere barrungo arrak ematen etzion: orregatik gela hura Jenobebak utzi zuen bezela zegoan. Oraindik an arkitzen zan Jenobebak erdi bordatua utzi zuen sedazko gerriko bat, zeñaren urrezko letretan irakurtzen zan: Sigifredori batallak irabazita datorreneko, bere esposa leial Jenobebak. An zeuden ere berari egin ziozkan, baña Goloren tranpak zirala bide bere eskuetara beñere iritxi etziran, karta asko, beraganako amore eta leialtasunez betetakoen erabezta edo kopiak. Beretan esaten zio: nola egunoro beragatik erregutzen zuen, eraso eta ausi-abartza gogor aietatik onez eta osasunarekin Jainkoak atera zezan; esaten zion: baldiñ etxera zetorrenean, bere aurra besoetan artuta, bidera irteteko suertea izaten bazuen, zer pozaldi eta lasaitasuna artuko zuen; beragatik zenbat naigabe zeraman eta zenbat negar egiten zuen; eta berak eskribatzen etziolako, zeñ gau luze-tristeak zeramazkien, bada Golok Jenobebaren karta guziak arrapatu eta gelditu zituen bezela, Kondearenak ere alaxe egiten zituen. Arri eta zurturik Kondea, bere barrungo naigabeak itobearrik, silla batean jarri,

eta gauerdia zalarik, ezertzaz oartu gabe bere artan zetzan.

Onela zegoala, Berta, neskatz leial hura etorri eta gelara sartu, eta Jenobebak presondegian eskribatu zuen karta hura bere eskuetan ipiñi, eta perlazko lepoko ederra erakutsirik, igaro zitzaion guzia negar saminki egiñaz, esan zion. Kontatu zion gañera zenbat on Jenobebaren eskutik bere gaitz-aldian artu zituen; Jenobebak presondegian azkeneko gau triste artan zer gauzak esan ziozkan, eta gañerako zekien guzia. Ark guziak, baña batez ere kartak ipiñi zion Kondeari argi eta garbi Jenobebaren garbitasun, eta Goloren gaiztakeria. Bere arpegitik bera negar malkoak mara mara abiatu zitzaiozkan, eta etzuen egiten ezpazan deadar izugarria, ziotsala: O Juangoikoa Jaungoikoa! O Jenobeba biotzekoa! Eta nik zu eta nere semea hillerazitzea! Ah! gizonik urrikalkizunena naiz! eta aren deadarretara etorrita, an zegoan Wolfio leialak hura bere oneratzeko egiten zituen egiñal guziak alperrak ziran.

Negar samiñak egiñ ondoan asi zan bere ezpataren billan, berearekin Golo josteko asmoz.

Wolfiok orduan ere galerazi, eta Golo ere zer zio-
tsan aditu gabe hill etzezala, esan zion. Orduan
Kondeak Golo gau artan bertan katez eta burniz
lotu, eta Jenobeba egon zan ziega artan bertan
sar zezatela, agindu zuen. Agindu ere zuen,
Golori lagundu zioten guziak ere itxian sar zitza-
tela, eta soldaduak beren nagusiaren agindua
pozik asko egin zuten. Golo zekarkioten bitar-
tean Kondeari, Jenobebaren karta berriz irakur-
tzen ziardula, topaturik hitz aiek: barka zaiozu
nik barkatzen diodan bezela; nigatik odol tanto
bat bakarra ere ixuri bear ez da... bere biotzaren
erdiraño sartu, eta mella gogorra egin zioten.
Golo Kondearen aurrera zanean, onek bere
negarrezko begiak begiratuaz, eta naigabez
estuturik, samurtasun guziaz esan zion: Zer egin
dizut nik, Golo, zuk nere gañera gaitz-egoki izu-
garri au erakartzeko? Zer egin zizun nere emaz-
teak, zer nere semeak zuk berak hilltzeko? Zuk,
umezurtza baten gisa nere etxera etorrita, emen
ona besterik artu eztezu, eta, onela ordañtzen
nazu? Golok Kondea aserre bizian sartua, eta
beregandik irtena topatu uste zuen; baña uste-
gabeko biguntasun onek biotza autsi, eta esan

zion: ai Jauna! griña gaizto madarikatu batek
lilluratu ninduen: zure esposa garbi eta kulpaga-
bea zan, zeruko Aingeru bat bezela; eta nire zale
eta gutizi gaiztoa betetzeko lekurik eman etzida-
lako, hura galduaz, nere bizia segurutu nai izan
nuen. Ark zuri egia agertzen bazizun, Jauna,
nereak egin zuela, ikusten nuen: beragatik nero-
nek aurrea artu eta gezurrezko asmazio izugarri
aiek zuri sartu nizkitzun. Kondeari beñik beñ
konsuelo bat eman zion Jenobebaren garbitasu-
na Golok berak agertzeak: orduan ziegara itzul
zezatela, agindu zuen.

Arrez geroz Kondea aituz eta urtuaz zijoa;
eta laster arenak egingo zuela, etsi zuten. Bere
naigabe eta miñak askotan zentzua galtzen zion.
Ingurumaiko bere adiskide andizki guziak bera
alaitu naiz etorri zitzaiozkan; baña Kondea gela
artatik mugitu ere gabe beti illun eta triste zego-
an. Meza entzutera bere oratoriora ezpazan,
andik irten nai etzuen. Aren kezka eta ardurarik
andiena Jenobeba zana non ote zetzan billaera-
gitea zan, antxe negarrez urtu, eta gero aren
elizkizunak zegokion eran egiteko, baña toki
hura iñork somatu ezin zuen, zeren hura hilltze-

ra eramán zuten gizon biak, ez nora, eta ez ara
iñork jakin gabe, ezkutatuak ziran, eta oek nora
zuten, iñork ere etzekien. Kondeak bere elizatzon-
an Jenobebari elizkizun andi bat egiñ zegiotela,
bearrekoen artean limosna andi bat zabal zedi-
lla, eta gertakari triste hura, ondorengo guziak
jakin zezaten, arrizko tunba andi bat egiñ, eta
urrezko letrakín eskribatuta guzia bertan ipiñi
zezatela, agindu zuen.

AMABOSTGARREN BURUA

Sigifredok bere esposa Jenobeba arkitzen du

Luzaroan eziñ ateraerazi al izan zuten Kondea bere jauregitik, eta geroenean ere bere adiskideak eta Wolfio leialak hura zerbait alaitzea nolerebait iritxi zuten. Onetarako ematen zituen batek jan-edan andiak; besteak somatzen zituen jostaketa berriak eta azkenik, besteak lagun askorekin eizera eramaten zuten. Nola bere gazte denboran eizera itsutua izan baitzan, ezerk ongien jostaket onek bere naigabea aztu eragiten zion; eta beragatik lagun aiek au ezagututa, puntuan beñ irteten abiatu ziran, denbora artan baso aietan ugari oi ziran basurde, basauntz, otso eta artzak hilltzera; eta beste askotan bezela beñ Wolfioren erreguz Kondeak pensatu zuen, lagun-talde andi bat berekiñ artu, eta eizera irtetea. Negu-azkena zan, eta gauez elurra egindako eguraldi ustel batean irtetea, erabaki zuten. Egun au eldu zan, eta goiz asko jaiki, eta bere lagun andizki guziakin, eta jateko

eta edateko bear zutena eramateko morroi-talde batekin irten zan Sigifredo. Beren tronpetak basoan jo, zakurrak bota, eta zenbait basurde, eta basauntz eraiki zituzten. Kondea ere basartean ikusten zuen basauntz baten zelatan jarri zan, eta alderatu zitzaionean, beraren ondoren abiatu zan. Abere onek aitzak eta sasiak ariñ eta azkar igaroaz bere burua Jenobebaren leizean gorde zuen; bada alabearrez bere esneaz Jenobeba eta bere semea ainbeste denboran mantendu zituen basauntz leiala bera zan. Kondea bere zaldia zuhaitz bati lotuta, basauntzaren oñatzen jarrai joan, eta leize artara iritxi zan. An barruna begiratu eta leizearen sotar-gañean zetzan persona, bizia zirudien bat guziz aitu eta galdua, ikusi zuen. Jenobeba zan: bada gaitz andi ari bultza bazion ere, añ argal eta ezereztua geratu zan, non egun batetik bestera herioaren begira egotea beste erremediorik etzeukan. Persona bizia bazera, deitu zion Kondeak, irten zaite zulo orretatik kanpora, argitara. Jenobeba bere ardi-narruan bildu, bere sorbaldak buruko ille luze ederrarekin estalirik, zankoak eta besoak agirian, otzak kuxkurtuta, eta biziaren baño

hillaren antz obearekin, agindu bezela, irten zitzaion. Zeñ zera, Kondeak izutu, eta pausoak atzera emanaz, galdetu zion, eta nondik etorri zera onara? Kondeak batere ezagutzen etzuen; baña Jenobebak bere senarra bereala, eta lenengo begiratuan ezagutu zuen. Sigifredo, esan zion Jenobebak, zuk hilltzeko agindu zenduen zure esposa Jenobeba naiz; baña nik kulparik ez nuela, Jaungoikoak ondo daki. Au Kondearentzat bere buruaren gañera tximista bat erortzea bezela zan; etzekien alabaña amesetan ote edo esna zegoan. Nola bere pena eta naigabeak iñoiz kordea galtzen baizion, eta nola mortu illun artan bakarrik, eta lagunetatik urruti baizegoan, Jenobebaren anima ikusten zuela, uste zuen. Oh! lastimazko boz batekin esan zion; oh zu nere esposa zanaren anima! zergatik zatozkit beste mundutik niri nere gaizkia arpegira ematera? Emen toki onetan hill, eta zulo orretan sartu zinduten? Bai noski; eta zure gorputza jaiki da zulotik, nik zure odolaz busti nuen lurra oñazpian zapal ez dezadan; eta zure anima agertzen zat aserretua nere gaiztakeri andiaren kontua eskatzera. Ah! itzul zaite, biur zaite zere lekura,

anima bedeinkatua! Nere barrungo arrak berak ematen dit imurtzi eta naigaberik asko. Itzul zaite zere pakeazko lekura, eta erregu zazu nigatik... lurrean pozik ez daukan doakabe onegatik. Etzakizkit arren agertu egoera errukarri orretan: ager zakizkit aingeru eder baten gisa, barkatzen didazula esanaz. Sigifredo, esan zion Jenobebak negarrez: ene senar laztana, ez naiz iñongo anima, egiaz zure Jenobeba, zure esposa ber bera naiz; oraindik bizirik nago: ni hill bear ninduten gizon on aiek berak bizia gorde zidaten. Ordea Kondea bere zukurutz gogorretik oraindik bere onera etzan: begietako argia galtzen zitzaion, eta bere emaztearen hitzak aditzen ere etzituen; eta geroago eta beldur geiagorekin begiratzen zion. Jenobebak samurtasunik andienaz eskutik eldu zion, baña berak eskua atzeratu, eta izuturik esan zion: Ai! utzadazu; zure eskua otza dago gela bezela. Eraman nazazu ezperen hillaren esku orrekin zere zulora; bada bizi au neretzat astuna da eta ezin jaso dedana. Jenobebak berriz ere esan zion: Sigifredo, nere senar on laztana! eta au ziotsan unean zeruko aingeru batek bezañ begi maitatsuarekin

begiratuaz, esaten zion: eta orrela beraz zere
esposa ezagutzen eztezu? Begira nazazu, hura-
xe ber-bera naiz. Berriz eta berriz begira nazazu,
nere eskua ikutu zazu, zuk emandako erraztuna
oraindik berekin daukan esku au ar zazu. Oh!
zeregandu zaite, Ai Jauna! arren lozorro onetatik
esna zazu! Noizbait bearta, lo pisu batetik esna-
tzen dan baten gisa bere onera etorri eta deadar
egin zuen: Bai, zu zera, eta oñetan auzpeztu
zitzaion. Bere esposa añ galduaren arpegira
begira jarri, eta hitzik eziñ asmatuz luzaroan
zegoan; baña geroenean negarrari eman, eta
esan zion: eta, beraz Jenobeba zera? Miseri one-
tara eta nigatik miseri onetara etorri zera? Ai!
lurrak ere bere gañean iduki bear ez ninduke!
Nik zuri begiratzeko ere arpegirik ez det! eta zuk
niri barkatu?

Jenobebak negarrez esan zion: Ni zure kontra
iñoiz ere aserretu ez nitzan: beti maite izan zai-
tut: banekien alabañan zu engañatua ziñala. Ah!
altxa zaite, eta atoz nere besoetara. Begira nola
berriz ikusi zaitudalako pozak negar eragiten
didan. Baña Kondeak begirik jasotzeko biotzik
gabe, esan zion: Eta zuk erriertatxo bat bera

ematen eztidazu? Hitz garratz bat bera esaten eztidazu? O zu, zeruko Aingerua, zu, anima gozo, anima atsegiñ, zeruko anima! Zenbat eraman erazi dizudan! Sosega zaite, Sigifredo, esan zion Jenobebak, ar zazu guzia Jainkoak bialdua beze-la, bada Jainkoak onela nai izan du. Niri mortu onetara etortzea on izango zitzadan: aberastasu eta erregaloak bearbada nere galerarako izango ziran; baña eremuan Jainkoa eta nere salbazioa arkitu ditut. Onela ziardutela, etorri zan Desdixado. Bere soñean basauntzkumearen narrua beste arroparik etzeukan; eta bere oñuts-gorriakin elurretan txapa-txapa zetorren. Añ ederki apaindutako gizon hura ikusi zuenean, oso izutu, aurrera pausorik aldatu gabe geratu eta asi zitzaion deadarka amari esanaz: amatxo, ori zeñ da? ori ere zu hill nai zaituen gizon gaiztoren bat da bear bada? Onela deituaz bere Amaganonz korrika zetorren bizkitartean zio-tsan: zuri ezer egiñ degizun baño len hill bearko nau... Jenobebak gozotasun guziaz esan zion: Ene laztana, ez izutu; atoz eta eskuan muñegiñ zaiozu: zure Aita on maitea da; begira nola gure miseriak negar eragiten dion. Jainkoak bialdu du

onara, gu emendik aterata, bere etxera eramatera.

Mutilltxoari alderatuaz zetorkion bezela arretandiagoaz bere Aitak begiratzon zion: bere illelodi kizkurrean, bekoki zabal ederrean, begizabal bizietan, sudur pollit eta ao egokian Aitareren itxura eta anz oso eta bizia zegoan. Aitak bere semetxo guri eder hura egoera triste artan ikusi zuenean, negar eta negar egiñaz, eziñ esan al izan zuen, ezpada: O nere semea, nere semea! eta zerura begira jarri, eta ama-semeai elduta ziotsan: O Jaungoikoa! uste eta esperanzarik gutxiena neukanean, emen nere semea lenengo aldiz ikustea, eta hillen artetik piztuta bezela nere emazte maitea berriz arkitzea, nere biotz gaxoarentzat poz andiegiak dira. Eta Jenobek berriz bere eskuak tolestu, eta zeruronz begira jarririk, ziotsan: Bai, o Jaungoikoa! zu mesedeak egiten ugariegia zera! eta puntu batzuetako eramankizunak neurri gabeko atsegin-kontentuakin gizonaren biotzari ordañtzen dakizuna! Esker milla, Jauna, zuri. Eta aur gaxoak ere bere gurasoak otoitz egiten era artan ikusi zituenean, bere eskutxoak zeruronz jaso,

eta Amari aditu zion bezela esan zuen: Jainko maitea, milla ta geiago esker zuri. Oraindik luzaroan antxe egon ziran, mingañaz eziñ zutena, biotzaz Jainkoari esaten. Geroenean ere Jenobeba asi zan hitzegiten, era onetan: Nere gurasoak oraindik bizi dira? Zartzaro ona daramate? Nik kulparik ez nuela, badakite? Ah! hilltzat negar egiten didatela, zazpi urte dira, eta urte orietan aien berririk ez det! Kondeak eranzun zion: Bizi dira; onik daude, eta zure errurik eza badakite; eta zu arkitua nola izan zeran albista gozoarekin alik lasterren mandataria bialduko diet. Jenobebak bere esku tolestuak berriro zeruronz jaso, eta pozaren andiz negar egiñaz, esan zuen: Orañ, Jauna, alabatua izan zaite. Enzun dezu nere eskaria: bete dituzu nere biotzaren zale eta deseoa, eta gañera gorde didazu ozta nere buruari opa negiokeana. Zuk atera dezu nere senarra gerrako ainbeste ausi-abartzaren arte-tik, agertu dezu nere garbitasuna, eta ziegatik, heriotzetik, mortu izugarri onetatik... pena guzien artetik atera nazu: nere seme maitea bere Aitaren aurrean ipintzeko denbora prezio-tsu au eman didazu; eta gañera nere guraso zar

maitagarriak ikusten utziko didazu. Zer esker onenbeste bat grazia eta doairen alderako eman negizkitzuke?

Onen ondoren Jenobebak bere senarra eraman zuen leizera, zeren oñ-uts gorrietan zegoe-lako elur otzaren gañean eziñ geiago iraun al izan zuen. Kondea leizeko arkaitz bustiai, Jenobebak zeukan egurrezko gurutzeari, oroldiozko bere etzauntzari, txarrotzat eta edontzizat serbitzen zioten kalabaz zatiai... begira zegoan. Gauz aiek ikusita, guziz arritu, Jenobebaren aldamenean etzan, mutilltxoa bere belaunetan artu, eta leizearen ertzean zegoan elurrari begiratuaz, O Jenobeba! esan zion: zer mirari moduk gorde zaitu bizirik leku izugarri onetan? Zer zeruko Aingeru bialdu dizu Jainkoak zu alimentatzeko? Ah! zazpi urte eta geiagoan ogi-mokadu bat gabe, neguan su gabe, oe gabe, arropa gabe, eta elur artean oñ uts gorrietan...! Eta urrezko eta zillarezko ontzietan jaten zuen, seda-damaskoen artean azi zan, eta kanpoko aizeak bere bizian ozta ikutu zuen dama biguñ minbera bat!!! Eta guziaz ere penaz eta naigabez, nekez eta trabajuz aitua zaudelarik maite nazu, anima justu eta

leial orrek!!! Ah! zer geiago egiñ al diteke senar on bategatik, zuk nigatik egin dezuna baño?

Jenobebak aingeruaren pozezko farra-irri batekiñ eranzun zion: asko da, eta gauz orieta-korik geiago ez da zer aipatu ene senar maitea. Emen mortu onetan ere atsegiñ-kontentu asko izan ditut. Jauregietan ere oi ez dira bada naigabe, pena eta eramankizunik asko? Eta zuk zero-rrek nik baño geiago eraman eztezu? Utzi zaiegun bada gauz oiei, esan zion Jenobebak, hitzket hura beste batera aldatu naiez; begira zaiozu or zere semeari; begira bere masalltxo ederrak nola argi egiten duten. Batere maneatu gabeko janariak, eta Jaungoikoak bialdutako aize garbiak osasunean sendo gorde dute. Gure jauregian azi balitz, izango zituen ainbeste begiramentu eta naieren artean erkitu eta galduagoa egongo zan noski. Beragatik poztu gaitean, Sigifredo, eta Jainkoari eskerrak degizkiogun. Orduan Jenobeba asi zitzaion, nola Jainkoak basauntz hura leizera lenbizi etorri zitzaionetik, hura bera Kondearen iges etorri zitzaioneraño, bera eta bere semea mantendu zituen kontatzen. Kondeak arret andiaz guzia aditu ondoan,

esan zuen: Miragarria da Jaungoikoa bere gauzetan, eta aberatsa gizonak salbatzeko gaietan! O ene seme laztana! gogora zazu zere bizi guzian nola zu, aur txiki eta zere Aitak utzi eta desanparatu bat ziñalarik, eta zure Amak zuri zerekin lagundu etzeukalarik, biok goseak hill ez zintzaten, abere on au Jainkoak zuekgana bialdu zuen. Gogora zazu beti nola zure Amaren estura larria bere biziaz etsitzeraño, eta gañera zu ere gaxori mortu onetan onenbeste bat piztia gaiztoren artean nere billan abia zindezen bezañ laster hillko ziñanaz seguru egoteraño iritxi eta Jainkoak basauntz beronen bidez zuekganako bidea zuzendu didan. Denborarik estu, larri eta premiazkoenetan erraztasun onekin laguntzen du Jainkoak. Beragatik, uste eta konfianza guzia beragan beti iduki zazu.

AMASEIGARREN BURUA

Sigifredoren jauregian

Jenobebaren sarrera

Orduan Aita-Ama-semeak, beren malkoak oraindik legortu baño len, leize artatik irten ziran. Kondeak bere lagunai deitzeko bere tronpeta artu, eta añ irme jo zuen, non inguruko mendi guzietan ere ondo asko aditu zan. Arterañ alako gauzarik ikusi eta aditu etzuen mutilltxoa ere, soñu, beretzat arrigarri arekin poztu, eta bere Aitak bezela jo naiez puzka asi zitzaionean, Amari farrak irten zion. Tronpeta-soñua aditu zutenean, andizki eta beren morroiak, batzuek zaldiz eta besteak oñez, andik-emendik Kondea zegoan lekura lasterka etorri, eta arako Kondeak eskutik zeraman emakume desitxuratu eta mutilltxo zoragarri hura ikusi zituztenean, izututa arriturik geratu ziran. Guziak lasterka beregana etorri, irurak ingurutu, eta isillik eta begiramentu andiarekin zeuden; zeren Kondearen, emakume aren eta mutilltxoaren begiak oraindik negarrez zeuden. Orduan ozta esan al

izan zien Kondeak: Nere lagun prestu eta serbitzari leialak, ona emen nere Esposa Jenobeba eta nere seme Desdixado. Hitz oek adituta, arritu eta txunditurik, guziak alde banatatik alkarren leian abiatu zitzaiozkan galdez: Nola liteke gure Etxekoandrea? Gure Kondesa hill etzuten bada? Hillen artetik piztu al da bada? Iñola ere eziñ liteke; ez da posible. Baña bai, hura ber bera da. Ai Jauna! eta nolako miserian! Begirozute zeñ aitua, galdua eta erkitua dagoan! Ai nere Kondetxo maitagarria! zeñ aur eder, guri gozoa! Pozak eta errukiak, izuak eta ikus-gurak, guziak zer esan, pensatu, galdetu, eta egiñ etzekitenean zeuzkan.

Kondeak gertaera guzia hitz laburretan adirazi, eta guziai bereala bere aginduak eman ziezten. Zaldun biri agindu zien, lasterka joan, eta Jenobebaren arropak, kotxe bat, eta Kondesaren joaerarako bear ziran gañerako tresnak zekaizkitela. Morroi batzuei agindu zien, leku artara zaldi eta mulak zekaizkitela, eta beste batzuei berriz egurra galanki bildu, eta an arkaitzpe batean su andi bat egin zezatela. Kondeak berak bere arropa-zorroa idiki, eta suaren ondoan

alfonbra batzuek zabaldu, eta bere kapa ede-
rrean Jenobeba bildu, burua estaltzeko pañuelo
bat eman eta ama-semeak su-ondoan eztiro ipiñi
zituen. Ala zeudela, andizki guziak alkarren leian
etorri, eta Jenobebak ziran guziak ezagutu
zituen. Antxe guziak al zuten ongi-etorri-
onena egiñ zioten, pozaren eta errukiaren andiz
zer zioten etzekitela. Baña guzien artetik sartu
zan zoratua bezela Wolfio prestua, eta beste
gañerakoak beren diosal eta ongietorria ondo
egiteko lekurik artu gabe, Nere Etxekoandre
noblea, esan zion bere malkoaz Jenobebaren
eskua bustiaz, moroak lepoa moztu etzidate-
nean, eta oraindik bizirik geratu nitzanean pozez
eta kontentuz beterik geratu nitzan; baña orañ
pozik guziz pozik hillko naiz. Urrena Desdixado
bere besoetan artu, bere masalltxo bietan musu
gozoak eman, eta esan zion: Milla ongi etorri
zuri, aur eder zoragarria, zuri zere Aitaren itxura-
rik bizen orri: izan zaite azkar eta portitz zere
Aita bezela; ongille eta biotz onekoa, ama beze-
la; on eta errukitsu biak bezela. Desdixado
gaxoa ainbeste lagunen artean arritua eta izutua
bezela zegoan lenbizitik; baiña ezarian jarriaz,

berakin egiñ, eta hitzketan abiatu zan. Nola bere bizian ikusi etzituen gauz asko orduan ikusten baizituen, beti galdezka ziardun: eta guziai, baña berezkiro Wolfio zarrari, aurraren galdeera miragarriakin, bere barrua zabaltzen zitzaion. Lenen gotik zaldizkoaz geien arritzen zan; alabañan gizona eta azpiko zaldia biak bat ziralakoan zegoan, eta ala galdetu zion Aitari: Aita, lau-
oñeko gizonak ere badira? Zaldunak zalditik jatxita zaldi aiek bere aurrean ipiñi ziozkatenean galdetu zion: Aita, abere oek non atzituak dituzu? Emen mortuan gure artean onelakorik ezta. Orduan zaldiai alderagotik begiratu, eta oiek aon zeuzkaten zillarrezko mokadu ederrak ikusita esan zuen: hola! abere oek urre eta zillarra jaten dute! Suaren garra igotzen ikusi zuenean, lenaz gañera txoraturik, esan zuen: Amatxo, gizon oiek odei gorriak eratxi al dituzte onara? edota Jainko maiteak bialdu al dizte? Ah! garra-
ren argitasunari begira arriturik zegoan bitartean, esaten zuen, eta zer zeruko erregalo ederra! Au zer eta nolakoa zan jakin baldin bagendu, guk ere erregu askorekin eskatuko ez giñion Jainko onari, Amatxo? Negu onetan onik asko

egiño zigun noski. Jaten zeuden bitartean mutilltxoa batez ere baratzako fruta eder aiek arritzen zuten. Sagar umo eder barra gorriz estali bat eskuetan artu, eta aitari esan zion: Aita, non eta nola topatu dituzu neguan onelako fruta ederrak? Ah! zurekin bizitzea nonbait gauz ona da! Fruta añ ederra, gaitz egiñ zegion beldurrez, jatera ezin jarri zan; eta Amak janerazi zionean, pozez zoratu bear zitzaion. Luzaroan kristalezko edontzi bati begira, baña edontziari ikutzeko uzkur egonta, noizbait eskuetan artu zuenean, esan zuen: gelarekin egiña al da au? eta ezetz esan ziotenean, oh! eta nik ez nekizkien zenbat gauz eder Jainko onak egin dituen! Serbitzariak zillarrezko platera ispillua bezañ argi bat aurrean ipiñi zionean, an, ispilluan bezela, bere itxura ikusi, eta onekin izutu, eta igesari eman zitzaion; baña gero uzkurka platera artu, eta atzeko aldean ikusten zuelakoan zegoan mutilltxoaren billan asi, eta ezin topaturik, zer esan eta pensatu etzekien, baña burua geien galtzen ziona zan, berak arpegi muxiñ eta illuna ipintzen bazuen, platerakoak ere ala ipintzea, eta alaia jartzen bazuen, bestea ere alaxe jartzea. Gauz oiekin

eta onelako beste askorekin gonbidatu aiek eta Ait-amak zerzaz farra galanki egiña izan zuten.

Jan ez al zuten, Jenobebaren arropakin zaldu-
nak an ziran. Jenobeba, bere leizera joan, belau-
niko jarri, eta era añ miragarrian bere semeare-
kiñ bera mortu artatik atera zituelako, Jaungoiko-
ari esker humillak eman, eta leizean bertan jan-
tzi zan. Bere eramankizun andien gogoangarrira-
ko egurrezko gurutze hura artu, eta ederki
apaindurik leizetik irten zan. Jaten zeuden bitar-
tean morroiak egur batzuekin angarilla sendo
bat egin zuten; zeren arkaitz-arte aietan kotxerik
eziñ zebillkean. Kondeak bere alfonbrak angari-
llaren gañean zabaldu, Jenobeba eta Desdixado
gañean ipiñi, eta gis onetan guziak etxeronzkoa-
ri eman zitzaiozkan. Bidatzerdira orduko kotxea
topatu, eta ama-semeak bertan sartu ziran.
Basarte aietatik irten ez al ziran, jende asko
topatu zuten; bada Jenobeba arkitua zalako
albistea, ingurumaiko errietan laster barreatu
zan. Nekazariak beren aitzurrak, eta andreak
beren linaiak botata, beren atsegiñ andia ager-
tzera erri osoak an zijoazen; eta gaxo eta oien
begira zeudenak ezpazan, beste iñor bidera

irtengabe geratu etzan: guziak alik ongien apainduta, beren Kondesa ona alkarren leyaz ikusten zuten. Toki guzi aietan festa andi bat zala, zirudien. Beren jauregira alderatuaz zetozen bezela, jendea geitzen zan, eta geroago eta poz eta konsuelo geiago jende aiek erakusten zuten.

Jenobebari bidera irten zitzaiozkan gizonen artean erromes bi beren pordoi andiakin agertuta, biak kotxearen alde banatan auzpezturik jarri zitzaiozkan. Jenobeba ustez hilltzera eramán zuten gizon bi aiek ziran. Biak, baña berezkiro Konradok, bere gurasoakgana Brabantera eramán gabe, mortu artan añ errukarri utzi zituztelako, humilltasunik andienaz Jenobebari barkazioa eskatu zioten. Orduan kontatu zuten nola Goloren urrean bere bizia seguru etzeukatela iritzita, Jerusalenera joateko asmoa egin zuten; eta nola Jenobebaren berririk ote zan jakiten inguru guzi aietan ixillka ibilli ziran; baña nola guziak aspaldian hilltzat baizeukaten, Kondea tristeagotu etzediñ, ixillik eta hitzik atera gabe egotea, pensatu zuten. Ah! nola dateke, Etxekoandre andi prestua, esaten zioten, zu otzak eta goseak edota piztia gaiztoen atzaparrak ez hilltzea!

Altxa zitezela, Jenobebak agindu, eta bere besoa kotxetik luzatu, eta esan zien: Gizon onak, Jaungoikoaz urrena zuei zor dizuet nere semearen eta nere bizia. Zuk ere, ene biotzeko semea, eman gieztetzu eskerrak. Begira, oek dituzu zu hill bear zinduzten gizon aiek; baña gizonari baña Jaungoikoari lenago obeditu ziotelako, hill etzinduzten. Egia ez da, galdetu zien Jenobebak gizon aiei, guri bizirik uzteaz orañ damu ez dezu-tela? O Jaungoikoa! esan zuten biak; zuei bizirik uzteko orduan egiñ genduen guzia beldurgarri eta arrisku andikotzat gendukan; baña orañ, orañ ondo ezagutzen degu ala etzala, eta bizia uzteaz gañera, geronaren arriskuz bederik, zeron gurasoetara eraman bear zinduztegula. Gizon aiek ostera Kondearen oñetan auzpeztuta, berari barkazio eskaturik, beren familiai egin ziz-ten on eta laguntzeakgatik esker onak eman ziz-kioten; bada gizon aiek arriturik jakin zuten nola Jenobebak bere azkeneko kartan berakin beren emazteai lagun zegiela, Kondeari biziro erregu-tu, eta onek laguntze andiak egin ziezaten. Zuek nere esposaz eta semeaz kupitu, eta oiei bizia utzi ziñietela, nik ez nekien, esan zien: baña

zuen emazte eta aurriz urrikalduta bete ditut Jaungoikoaren hitz oek: Errukitsu danak, berak ere iritxiko du errukia. Zoazte bada ordu onean; eta aurrerontzean zuek, zeron emazte eta aurrakin bear dezutena, nere kontu.

Biak Kondearen oñetatik altxa, eta kotxearen aldamentetik zijoazen bitartean Enrikek Konradori esan zion: Ikusten dek orañ nola orduan nik esan niana egia zan? On egiteko sekulan beldur bear ez tala, askotan perill andiko gauza dala iritzi arren? Orra bada nola orañ, denbora luzeak joanagatik, onegiñaren sari ugaria artzen diagun.

Garai artan bertan txara-arte batetik irtenik, Jenobebak bere jauregia ikusi zuen: aditu ere zituen bere ongietorrirako jauregi artan, eta erriko eta ingurumaiko elizetan puskatzeko zorian jotzen zituzten ezkill edo kanpai-soñuak. Ikusi zuen nola bazter aiek, eta zuhaitzetarañoko guziak jendez beteak zeuden, guziak pozezko malkoak zeriztela, beren ongi-etorri eta poz erakutsi andiak egiñaz

Gauz oiek guziak eta asko geiago ikusi zitue-nean, nola bera añ humilla baitzan, arras lotsatu

zan. Bere semetxoa oraindik bere auntzume-
narruarekin eta gurutzea eskuetan zekarrela,
Jenobebak bere magalean zekarren. Kotxearen
eskuialdetik Kondea, eta ezkerretik Wolfio beren
zaldietan zetozen. Aurretik erromes biak, eta
atzetik, etxean oitutako zakur bat bezela,
basauntza. Zaldunak ere batzuek aurretik, eta
besteak atzetik, guziak an ziran. Jendetza izuga-
rri aren erditik zijoazen garaian, emakumeak asi
zitzaiozkan esaten: O gure Etxekoandre andi
maitagarria! ongi-etorri zerala, eta zeñ galdua
zauden! ah! santa andi bat egiñik dator: orrela-
xe egongo zan noski Maria ere Gurutzearen
oñean. Beste batzuek zioten: Begira mutilltxo
zoragarriari, San Juan bera dirudi. Eta beste
batzuek berriz: Eta ez diozute begiratzen
basauntzari? Aberreetarañoko guziak nai diote
gure Kondesa on maitagarriari! Ama askok Jenobeba
zeñ zan erakutsiaz beren besoetako aurrai
zietsaten: Orixe da nik ainbeste bider esaten
nizuna, eta ainbeste negar egiten niona. Aita
askok beren seme azixeagoak besoetan goratuaz,
oiei esaten zieten: ikusten dek orañ? bada
orrexek hiri seaskakoa intzala, ainbeste on egin

zian. Makillaren babesean doi doia joan ziran agure eta atso guziak ere pozaren andiz gorputz guziko ikarak artuta zebiltzan.

Jenobebak bere jauregiko eskaratz edo soto andira zanean, antxe topatu zituen bere ongietorri pozkarrira joanta zeuden ingurumai guziko Señora eta dama guziak. Guziak alkarren berri gabe batu ziran: guziz ederki apainduak zeuden, eta guzien aurrean agiri zana, neskatxa moduzko, oñetatik bururaño txuriz jantzi, bere lepoan perla ederrezko kollare bat, eta eskuetan lore zurizko koroa eder bat zeuzkana, zan. Ar beza, esanzion samurtasunaren andiz hitzik eziñ asmatuz, ar beza koro au guzion izenean eta berorren garbitasun eta leialtasunaren siñale. Jaungoikoak beste koroa bat, au ez bezelakoa daduka zeruan berorrentzat siñalatu. Jenobebak neskatz au ezagutu etzuen; eta an zeuden gañerakoak esan zioten, nola bera ziegan zegoela joan zitzaion Berta zan. Etxekoandre andia, esan zioten: bakar bakarrik au izan zan zure deshonra eta egoera negargarri artan zugatik al guzia egin zuena; izan bedi bada zure honra eta atsegin-kontentu andian ere lenengo eta beste

iñor baño len parte artzen duena Jenobebak donzella oni begiratuta, bere lepokoa ikusi zionean, presondegiko gau triste hura gogoraturik, bere begi ederrak zeruronz jaso, eta esan zuen: O Jaungoikoa! nork esan zezakean ni gau beltz illun triste artan, nere aurra besoetan nuela parete beltz aien artetik gaitzkille bat bezela hilltzera atera nindutenean, ostera egunen batean leku onetara biurtuko nindutela? Bakarrik zuk, o Jaungoikoa! ziñakien, eta konsuelo au neretzat gordeta zendukan. Bai, Jauna, baldin kulpagabea onela honratzen eta konsolatzen badezu emen lurrean, zer izango da egunen batean or zeruan?

Egia diozu, Etxekoandre andia, esan zion Wolfiok, errugabea ez da izaten beti honratua lurrean, eta au bezelako festa eta atsegiñ-aldi bat banaketan izaten du inozenteak; guziaz ere, Jainkoak onelako gauzak noizik-beñ egiten ditu, zeruan egingo duena lendanaz zerbait proga dezagun. Gero bere Nagusiaganonz itzulita, esan zion: Jauna, larogei urte dira mundu onetara nintzala; urte oietan asko aldiz sartu naiz jauregi onetan baza eta biktori andiak irabazita; baña Etxekoandre onek gaur iristen duen biktoriari ur-

ematekorik sekulan irabazi ez det. Wolfio, esan zion Kondeak, egia diozu; baña biktori au Jainkoak berak prestatua da: bertuteak bizioen kontra irabazten duen biktori eta baza guziz andi eta miragarria da. Kondea ixilldu ez al zan, guziak bibaka eraso, eta guziaz zoratu nai zitzaien. Betiko bere negarrak, egun artako festa eta iskanbilla andi, eta hitzketa luzeak Jenobebari alain easan zioten, non eta burua galduta bezela txorabiatu, eta bere lengo gelara joan bear izan zuen. Antxe eman ziozkan Jainkoari esker gozo ugariak, bera eta bere semea ainbat perilletatik era añ miragarrian atera zituelako; eta alik ongien prestatu zioten oean etzan nai izan etzuen, arik eta Golok hill zuen Drakoren alargun eta ume-zurtza tristeak bere aurrera erakarri, eta bear zuten guziarekin berak lagunduko ziela, agindu zieneraño. Geroztik Berta leialak bere Jenobebaren ondotik aldegiñ etzuen, eta au beste serbitzaririk Jenobebak beretzat nai izan etzuen.

AMAZAZPIGARREN BURUA

Jenobebak ostera bere guraso zarrak ikusten ditu

Sigifredoren jauregia atsegin-kontentuz gañeztua zegoan bitartean, Brabanteko Dukearena illun, triste, negar eta lantuz betea arkitzen zan. Wolfio leiala bereala eta pozik eskañi zan Jenobeba arkitua izan zalako albiste pozkarria onen gurasoai eramatera; baña Kondeak esan zion: Nere adiskide zar maitea, emen gurekin gure ondoan gera zaite eta bidaje nekagarri eta luze ori zu baño gazteago batentzat utzazu: moroen gerratik gentozela, zure azkeneko bidajea hura zala, nola esan ziñidan zerorrek dakizu. Wolfiok eranzun zion: Gizonak bat, Jaungoikoak beste bat pensatzen du: ainbeste gerra eta ausiabartza gogorren ondoren geroenean ere Jaungoikoak gorde nau noski, ezergatik iñori ere utzi ezin nizaiokean bidaje honragarri au egiteko: au sinistu, eta utzadazu arren, Jauna, ara

egatzen. Baña begira itzatzu ondo, esan zion Kondeak, zere urteak, emendik arako bide luze gogorra, eta neguaren biotzeko garai au, Wolfio maitea Orri guziari ez da zer begiratu, eranzun zion Wolfiok, gure Etxekoandre maitagarria gerekin daukagunez geroz, nik ogei urtez gazteago naizela deritzat, eta nere beargaiari eziñ eman nizaiokela uste det azken eta akaballa ederragorik, au baño egiteko honragarriagoarekin. Ondo irteten bazat, pozik, txit pozik emango diot atsedena nere buruari; gero urtez ondo aseta, penaren arrazarik gabe hillko naiz. Izan dedilla bada, Kondeak bere biotza samurtuta, esan zion: zoaz nire lagun leial biotzekoa ordu onean; nere ukulluko zaldirik obeena arzazu; zere lagun amabi zaldun, zaldun guzien galaie-nak eraman itzatzu: nere ait-amagi-arraba zarrai zere biotzak erakusten dizun guzia esaiezu, eta Jaungoikoak ondo eraman eta ezbear eta autsi-oso gabe nere besoetara zakaizkiela. Jenobebak ere beragana deitu, eta bere guraso maiteai, aiekganako zedukan amore biziak gogora eragiten ziozkan milla eta milla gauza eta gorainzi esateko agindu zion.

Wolfio gau guzi artan geratzaka jardun, eta egunsentirako prest zegoan. Bere lagun guziak eraiki, eta bere aiekin bideari ekin zion. Bera beti guzien arretik zijoan, eta egunean eun aldiz bederik esaten zien: Aurrera, nere lagunak, aurrera, ez aspertu. Egun batean eta bestean beti onela zijoazen, goizean goiz asi, eta arratsean berandu geratuaz. Baldiñ bere lagunak galdetzen bazioten: Wolfio Jauna, zergatik zoaz orren itoka? Erantzuten zien: Gogora ekartzute zer naigabe samiñ eta pena latza gure Etxekoandrearen gurasoai kentzera goazen. Gizon leial batek ordu batzuetako neke penak, ez besterik, daramazkienari arin dizaiozkanean, bere buruaren kupida bear eztu. Askotan igo diogu zaldiari, gizonai lepoak moztuaz, iñori negarra ematera; goazen bada beñ edo beñ malkoak leortzera eta, konsueloa ematera ere. Ah! nik orañ nere azpiko zaldiak egoak izatea nai nuke lenbait-len ara iritxi al izateko!

Wolfio bere lagunakin illuntze batean gaztelu batera eldu, eta ango nagusiak esan zion, nola Sigifredo eta Jenobeba ezkondu zituen Obispo zar beneragarria auzoerri batean zegoan. Goa-

zen bada egiñal guzian bertara, esan zuen Wol-
fiok; guk dakargun albiste ona gizon santu orrek
ere jakin bear du; eta añ ikasia eta jakintsua dan
bezela, erregutuko diot, erakus dizadala nola
Dukeari eta Dukesari nere enkargua aditzera
ongien eman al-nizaiekeen: bada gauz onek nai
ainbat eta geiago pensakizun ematen dit, eta lan
gaitz au egiteko era eta bide egokiagorik arki-
tzen ezdet Ni soldadu zar bat naiz, eta susto eta
beldurra zer diran, orañdaño sekulan jakiñ eztet;
baña sinis nazazute, ezen Kondesa bizi zalakoa
lenbizi aditu nuenean, guzi au ikaratu eta orain-
dik ere susto hura nigandik irten eztala. Pozak
onela izu zezakeala, uste ez nuen; eta baldiñ
gizonak hiltzen ezpada jakiñ eztuen soldadu zar
bati au gertatzen bazaio, Jenobebaren guraso
biotz-samurrak pozaren indarrez hillik bertan
erortzea, erraz litzake. Berri au ezarian eta pix-
kaka ematea, hitzak neurtuaz ematea... neretzat
egiña ezta; gure arteko nornaik guziz ondo daki
ezpata erabiltzen, baña iñork ere ez mingaña
erabiltzen; zer eta nola hitzegin bear degun,
Obispo Jaunak erakutsiko digu; bada guk baño
obeto daki mingañai hitzegiten.

Ara iritxi ez altzan, kontatu zion Wolfiok Obispoari gertakari guzia, eta bere enkargua egiteko arkitzen zituen neke eta trebesiak agertu ziozkan. Obispo Jaun ark konsueloz gañezturik, Jainkoa alabatu, eta Wolfiori esan zion: Sosega zaite, oh gizona! Jainkoak guzia txit egoki zuzentzen eta manerutzen du. Alabearrez orantxe nijoan nerau guraso triste oriek ikustera. Goazen bertatik alkarrekin. Wolfio gizagajoa Obispoak esan zionarekin, eta oni bidean laguntzeko eratu zitzaion deretxarekin guziz alaitua geratu zan.

Duke-Dukesak tristeza eta sentimentuz beterik urte oro egiten zuten beren erriko elizan Jenobebaren elizkizun andi bat. Ala bearrez egun hura orduan zetorren, eta egun beraren goizean triste aiek biak alkarren ondoan eserita, naigabez estaturik, beren salan antxen zeuden. Albista triste hura artu zuten zerez geroz biziro zartu eta autsi ziran, biak beti arropa beltz progukoakin zebiltzan. Dukearen jauregia bertako guziak hill baziran bezela, bakar eta illun zegoan; zeren nagusiak iñorekin hitzegitetik igeska zebiltzan. Elizkizuna asitzeko ordua etortzen zan, eta Duke Jaun aiek Obispoaren begira zeuden, onek Jenobebaren

beba ezkondu zuen aldarean bertan elizkizunai asiera eman zegien. Dukeak penaren andiz hitzik ateratzen etzuen, eta berekiko zion: Gure familiar onelako ezegokia gertatu-bearra, eta gure arraza onela aitu bear izatea, ondo ala-bearreko patu gaiztoa degu: guziaz ere, Jauna, bete bedi zure borondate santua Andre Dukesak ere negarrez zion: Gure alaba bakar maitea galtzea, eta borreroaren atzaparretan galtzea, gauza gogorregia da. O Jenobeba! gure biotzeko Jenobeba, gure azkeneko arnasetan zuk, zeruko Aingeru batek bezela, lagunduko ziguzulakoan, eta gure begiak itxiko zizkigutzulakoan geunden; baña orañ orrelako pozik ezdaukagu: guziaz ere, zion ostera, egin bedi, Jauna, zuk naizuna, eta ez guk nai deguna. Gauz oek esan ez al zituzten, orra non sartu zitzairen supitoan, berak zeuden lekura Obispo Jauna. Bere arpegia zeruko atsegiñ-kontentu batek alaitzen zion. Ken bezate, utzi bezate, bota bezate tristeza ori, eta alai bitez Jaungoikoagan. Au esanta, abiatu zitzairen Jainkoak egiñ oi dituen gauza miragarrien gañean hitzegiten: ekarri zitzen gogora, bere biotzeko Jose kendu ziotenean, Jakob santuak

artu zituen pena, atsekabe eta estura larriak; ipiñi zien berriz begien aurrean Jose arkitutakoan Jakobek artu zuen atsegiñ-kontentu zoragarria: eta Obispo onen hitzen indar, espiritu eta gozotasunak Duke aien biotzetan guzizko mella egin zuen Jakoberen konsueloa aditzeak guraso zar aien biotzak bete, eta Andre Dukesak bere eskuak tolestu, eta esan zuen: Ai guk orrelako konsueloaren apur bat bederik bagendu, zer ditxa, zer zori ontasuna! Dukeak berriz esan zuen: Emen lurrean ez; baña an zeruan bai. Baita lurrean ere, eranzun zion Obispoak; Jaungoikoak orañ ere gauz andiak egiten ditu: berak ematen ditu naigabeak, eta berak kentzen ditu: obiratzten ditu personak, eta ostera lurpetik ateratzen ditu. Jakoberen eta Joserren Jainko hura ber bera da orañ ere. Penaren indarrez erdibitu etzitezen beron biotzak sendotu zituen Jainkoak berak pozaren andiz erdibi ez ditezen ere, sendo ditxala. Lenagoko urteetan Eliz onetan kantatu ditugun, eta gaur kantatu uste giñituen kanta triste eta negargarrien orde z kanta dezagun orañ Te-Deum pozkarri bat. Alabatua zu, Jauna, bada Jenobeba bizi da, eta berok beren begiaz berriz

ikusiko dute. Guraso zar biak alkarri begiratuaz, zer gertatzen zitzaien ertekitenean geratu, eta gizon santu aren hitzak gorputz guziko ikara eman zien. Esperanza eta beldurra biak batean biotzean sortu, eta esaten zitzaiena eziñ sinistuz zeuden

Orduan Obispoak atea zabaldu, eta Dukearen serbitzariakin batean, biotza saltoka zebilkiola, sal-aurrean zegoan Wolfiori deitu, eta esan zien: Ona emen non daukaten nik baño obeto berriak emango diztena. Wolfio sartu, eta abiatu zan deadarka: bai, bizi da, bai, Jaunak bizi da; egi egia da; nik neronek nere begi oezaz ikusi det, bere hitza belarri oezaz aditu det eta bere eskuari esku onezaz eldu diot. Hitz aiek: bizi da Jenobeba, jauregi guzitik bereala barreatu ziran. Dukearekin Dukesaren serbitzari guziak arritu, zurtu, eta zer gertatzen zitzaien etzekitenean beren nagusiakgana joan ziran. An jardun zitzaien Wolfio gertatu zan guzia kontatzen, kontatzen ziardun bitartean bere begietatik malko ugariak zerizkiola; eta beñ baño geiagotan biotza samurtu, eta hitzik eziñ asmatuz. Guziak arritu eta negarra zeriela, beren erdian artu zuten:

bakarrik Duke Jaunak eseri, eta zer gertatzen zitzaien etzekitenean zeuden.

Azkenik Obispo Jaunaren esanaz gañera Wolfiorenarekin sinistu zutenean, Dukea eta Dukesa lozorro pisu batetik esnatu baziran bezela jarri ziran. Zerbait berengandu ziranean, biak nola biak batera deadar egiñ zuten: Gure alaba Jenobeba gaxoa oraindik bizi dan ezkerro, nai ainbat bizitu gera. Ill gaitean baño len joan nai degu bera ikustera. Jaungoikoari eskerrak elizan eman ziozkaten bezañ laster Wolfio prestu, Obispo beneragarri eta gañerako guziakin Jenobebaren etxerakoari eman zitzaiozkan.

Bizkitartean Jenobeba, egiten ziozkaten laguntzen bidez ederki zuspertuaz zetorren; eta lengo kolore gorri ederrak bere masalletan agertuaz zijoazkion. Bere guraso zarrak ikusteko egarria besterik etzedukan, eta orra non supitoan, eta berak uste baño askoz lenago bere jauregian sartu zitzaiozkan. Jenobebari beren diosala samurtasunik andienaz egiñ, eta Aita gajoak, bere alabari laztandu, eta esan zuen: Orañ utzi zaiozu, Jauna, zure serbitzariari pakean hilltzen. Eta Ama biotz beraak ere bere alaba besartean

estutu, eta beste denbora batean Jakoben gisako biguntasunaz esan zion: Orañ zu bizi zeranez geroz, eta zure garbitasuna argiro agertu danez geroz pozik eta atsegiñ-kontentuz beterik hillko naiz. Eta guraso biak beren alabaren lepora besoak bota, eta ala egon ziran luzaroan negarrez. Urrena mutilltxoari begira jarri, eta biak pozaren indarrez txoratzeko zorian deadar egin zuten: eta orrela beraz zu zaitugu gure illobatxoa? Atoz, atoz gaxori, gure besoetara... Jainkoak bedeika zaitzala, gure laztana. Eta biak batean esan zuten: Zeñ arrigarri-miragarria dan Jaungoikoa! Ainbeste bat denboran hilltzat negar egiñ dizugu, o alaba biotzekoa, eta emen lurrean geiago zure arpegia ikusi uste ez genduen, eta orañ zu ikusteaz gañera zure seme gure illobatxoa ere emen dakusku! Orduan, arteraño beren zoramenean ikusi etzuten Obispo zar beneragarria ere Jenobebari eta bere semeari alderatu, eta arako Jenobebak Jaun hura beñgoan ikusi zuenean, Jaungoikoak zerutik bialtzen zion Aingeru bat zala begitandu zitzaion. Gizon santu ark Jenobebari lenengo, urrena Sigifredori eta gero Duke Jaunai begiratu, guziai bere bendizioa

bota; eta bere eskuak goratuaz, esan zuen: Orantxe bete du Jainkoak nere espirituari adierazi ziona: ene alaba, Jainkoak zuri eta emen dau den guziaz prestatu dizute ditxa bat; baña ditxa onek, munduko beste ditxa guziaz bezela, eramankizun andiakin zuen bere asiera: guk uste genduenetik beste era batera egin du Jainkoak, baiña guk pensatuko ere gendukean baiño era andi eta miragarriagoan. Ala garai artan guziok alkarrekin arkitzen giñan bezela, orañ ere era miragarri onetan, eta gutxien uste genduenean alkarganatu gaitu; eta orduan giñanetatik iñor ere palta ez gera, eta oraindik mutilltxo zoragarrri onekin orduan baño geiago gera; Jainkoak eskañtzen duen baño oraindik geiago ematen du. Zorionekoa neke, trabaju eta bidegabekeriak onez daramazkiena, bada guziaz azpiraturik, artuko du bera maite duten guziaz Jainkoak agindu dien betiko koroa. Koro au zuretzat ere antxe gordea dauka, o Jenobeba!

EMEZORTZIGARREN BURUA

Jenobebaren neke-penak erri guziari erakartzen dioten zoriona

Jenobeba bere gaitzalditik oso sendatu zala, jakiñ ez al zan, bera ikusi nai zukeen jendeak egun oro zetozkion. Wolfiok eman bear izan zion Jenobebari, bera ikustera zetozen guziaz, zanik beartsuenak izanarren, iñori ere galerazi gabe beragana iristen utziko zielakoa. Eta beragatik, nola jende asko baizetorren, Jenobebaren bizilekua beti laguntsu zegoan. Ala ere jende on hura añ ixill eta begiramentuz egon oi zan, non eta hitzik ateratzen eta ateaz aurrera sartzen etziran. Gizonak elizan bezela oi zeuden, eta emakumeak besoetan zeramazkiten aurrak ere beren eskutxoak gora jasotzen zituzten. Jenobeba arpegi añ alai gozatsuarekin agertzen zitzaien, non eta guziak zeruko argitasunez betea zegoalakoan zeuden. Jenobebak guziaz beren bizian astuko etzitzaitzen hitzak esaten

zizten. O nere jende on maiteak, hitz gozo eta amorezko batekin zirautseen; atsegin det zuek ni ikustera etortzeaz, eta nere pena eta konsue-loetan orrela parte artzen dezutelako, esker milla guziori. Ah! zuek ere zenbat eraman bear izaten dezuten, orañ konturatzen naiz! Eta geienok mundu onetan eramankizunik asko izan dezutela, badakit; baña maita zazute beti Jainkoa, ipiñi zazute beragan zuen uste eta konfianza, eta ez iñoiz ere beldur izan; berak bere maitatzalle egiazkoak ateratzen ditu estuasunetatik, eta guzia galdua dagoala dirudianean ere, txit ongi laguntzen du; bada zenbat andiagoa estutasuna, ainbat alderago dago bere laguntza. Azkenik, zuzentzen du guzia bear bezela, egia ezta? Au nere gertaeretan ez dakusute argi eta garbi? Bizi zaitzete dezutenarekin kontentuz eta gauz askoren egarri gabe; dezuten gutxiarekin ase zaitzete. Gutxiarekin ere batek atsegin-kontentuak balitzake; eta au nik mortuan ikasi det. Zue-tako beartsuenak ere nik an neukana baño geiag-
go izango du noski. Zuek badaukazute etxetxo bat, soñeko bat, oe bat, sua eta zopa beroa; eta egiaz gizona beste ezeren bear ez da. Beragatik,

ez itsatsi zuen biotzak munduko gauzai; ez itxutu diru hillagana, ezpada Jaungoiko biziagana. Jainkoak danik aberatsena guziz beartsu, eta beartsuena txit aberats beñgoan egin litzake: nigan ezdakusute? Jainkoaren amorean sendo egon zaitezte, gogoz eska zaiozute, eta zeron konzienzia garbiro gorde zazute. Beñ Jaungoikoarekin dagoanak, eta bere biotza Jainkoari ematen dionak, bere biotzean dauka zerua. Orazioak gauz onerako indarra eta neke-trabajuak eramateko animoa ematen ditu; odehyetarañoko guziak igarotzen ditu eta orazioa enzungabe iñoiz ere geratzen ezta. Konzienzi on bat, naigabe, eramankizun, neke eta trabaju guzietan, presondegietan, gaitzaldietan eta heriotzean ere guziz soseguzko oe gozo bat da. Zeron konzienziaren arrak ortzka egiten dizutenean, niri somatu zidaten pekatua bezañ astunagatik ezpada ere, saia zaitezte alik lenen Jaungoikoarekin pakeak egitera, eta orretarako zoazte bere Seme maite Jesukristogana. Mundu pekatari onen salbazioa, Ait Eternoak oni bere kontura utzi zion; bera da gure pekatuak garbitzen dituen, eta oien barkaziorako bere Odol preziotsu guzi guzia ixuri zuena.

Baldin pekatuak eztaukagula, badiogu, gero buruak engañatzen ditugu; baña gero pekatuak ezagutu eta aitortzen baditugu, Jainko on justuak guziak barkatuko dizkigu, eta gaitz guzietatik garbituko gaitu. Adi zazute beti gogoz Ebanjelio santua, eta bertan ikasiko dezute nik esan al guziarekin baña askoz obeto. Esku batean Ebanjelioaren liburua eta bestean gurutze batekin etorri ziran zuekgana Jaungoikoaren hitzaren lenengo erakusleak. Berriz esaten dizuet bada, adi zazutela Ebanjelioa, gorde zazutela zuen biotzetan, eta egin dezazutela arretaz eta zintzo, berak erakusten dizuen; bada Ebanjelioak, Jaungoikoaren hitza dan bezela, berez dauka bera sinisten duten guziak doatsu egiteko bazioa. Gañera gogora ekartzute beti, Gurutzean dagoala salbazioa. Gurutze, Pasio eta heriotzaren bidez iritxi zan Jesukristo bere Anditasunera: Gurutze, pena eta naigabeen bidez iritxi bear gera gu ere Jaungoikoaren erreinura. Egia ez da bide onetatik nai gendukeala joan guziok? Hitz oek esandakoan, guziaz bere eskua eman, eta berak esandako gauzak egingo zituztela, esku onen gañean guziak agindu zioten.

Ezkonduai eta gurasoai gañera beste sermoi bat egiten zien. Lenengoai ematen ziezten erakutsi onak oi ziran: alkarri begiramentu eta amore zegotela, eta beren amore eta naitasuna galera zera saiatzen ziren miñgañ leunen esaera gezurrezko eta losentxak ezertan artu etzitzatela; bada mingañ gaiztoak ezkontzarik obeen ere gañera zenbat gaitz eta kalte erakarri litza-kean berak berez guziz ondo ikusi zuela. Gurasoai esaten zien: Kristau onak bezela beren aurrak Jaungoikoaren beldur santuan azi zitzatela: Begirozute, beren aurrak besoetan zituztela an zeuden ama askori esaten zien: begirozute nola zuen seme-alaba maiteen bekokian eztagoan eskribatua mundu onetan zer ikuskizun dauzkaten. Mundura datozenean konsueloz, pozez, eta ustez suerte onaren begira egonarren, etorriko da eguna noiz eta, mundura diran beste guziak bezela tristetuko diran, eta negar egingo duten. Beragatik, ondo azi itzazute, ondo peleatuaz bizitza au igarotzeko indarrak ar ditzaten. Ni orrelakoa nitzala nere Amak bere besoetan nerabillean, onek asko uste etzuen noski niri ainbeste neke gogor, trabaju latz eta eramankizun

garratz bañera bear zitzaizkidala; baña bertuteak erakutsi ezpalizkit eremuan Jaungoikoaren beldurtasunarekin beraganako uste eta konfianza osoa, nik nere neke penapean etsi, ernegatu eta nere burua hillko nuen eta orañ Infernuko ondarretan egongo nitzan. Jaungoikoagan, Jesukristogan eta betiko bizitzan siniste oso eta bizi bat gabe, lurrean gure bizitza gogaikarri eta triste litzake. Saia zaitezte, bada, siniste edo fede au zuen seme-alabetan goiz sarreragitera.

Hitz oek Jenobebak esandakoan, Desdixadok aur aietako bakoitzari eskuerautsiren bat egin bear oi zion. Erregalo oek, eta Kondesa prestua- ren lanotasun eta konsejuak jende aiek guziz animatzen zituzten, eta gizonik biotz-gogorrenai ere, aur txikiak bezela, negar eragiten zieten. Jenobebaren ontasuna, bere lengo penak, bere eraman andia, bere ondoesanak, eta guziak gañ bere ejemplo ona bazter guzi aietarako bedeinkazio andi bat izan ziran. Ingurumai guzian guziz ezagun zan eran gizonak len baño obeagotu eta gauz onak egitera eman ziran: len errieta eta alkar eziñ ikusi eta gorrotoa besterik etzan etxe eta baserrietan pakezko eta kontentuzko, esti-

maziozko eta amorezko biziera sartu zan. Obispo zar beneragarriak guziz sarri esan oi zuen: Jaungoikoak gizonari mesede andiren bat egiñ nai dionean, aurrez eramankizun gogorrek bialtzen diozkala; eta Jaungoikoak botatzen digun bendiziorik santuena hura bera zala. Zure hitzak on geiago egiten dute Jenobeba, esaten zion, nere sermoi guziak baño

EMERETZIGARREN BURUA

Goloren patu gaiztoko azkena

Jendeak Jenobebagandik beren hitz-aspertua eginda irtendakoan, Golo ere ikusi nai oi zuten. Juezak Golo gezur-asmatzalle falso, serbitzari desleial gaizto, eta irutan gizon-hitzalletzat urka-be batean hill, eta lau laurden egiteko epaia eman zuten. Baña Kondeak bere esposa biotz beraaren erregu bizien bidez Golori heriotzaren pena barkatu zion; baña betiko presondegitik libratzea bere esku etzeukan. Jendeai Golo erakusteko ipiñia zegoan kartzela-zaiak soseguzko ordu bat etzeukan; baña guziaz pozik erakusten zien. Atozte, esaten zien: an Kondesaren gelan bertutearen irudi bizia ikusita bazatozte, emen Goloren presondegian gaiztakeriaren eta bizioen irudi bizia ikusiko dezute.

Argi bat eta giltza-mordollu andi bat eskuan artu, eta joaten zan aurretik lurpeko zulo aiek barrena ziega illun artara. Burnizko atetzar aiek idikitzearen zalapartak guziaz laborria sartzen

zien; eta argiantzera Golo an ikustean, oraindik areagoa zan beren izua, bada izatez ere izugarria zan bera ikustea. Bere ille luze nastu, beko-
kitik bera zirizkionakin; bere bizar andi itsusiarekin; bere arpegi papera bezañ txuriarekin eta bere begi larritu izugarriakin amorratu baten begiratu beldurgarria egiten zuen. Bere konzien-
zia galduak aldi batzuetan ainbesteraño estutu eta tormentatzen zuen, non eta, oso zoraturia bezela jarri, eta inziria eta marrua izugarriak eginaz, buruaz pareteak puskatu bearrean abiatzen zan. Beste batzuetan zerbait beregantzen zanean, ara zijoazkionai beren biotzak erdibitze-
ko diñako gauzak esan oi zizten. Ah! zeñ ero gaizto eta zentzugabea nengoan! esaten zien. O! Ai Jaungoikoa utzi eta griña eta gura makurrai biotza idiki, eta bere konzienziaren deiak aditu gabe uzten dituenaren zorigaiztokoa! Lenengotik atsegiñ-kontentu eta gusto labur engañagarriren batzuek balitzake; baña beren azkena nairgabe, pena eta lazeria izaten da. Lenengotik loreartean ibilltzen da ; baña bere lore aien artetik leize izugarri batean beñgoan ondatzen da. Atsegin-kontentu debekatuen ondoren dabil-

naren errukarria! Arros-arbol eder batera iritxi dalakoan, arros-artetik suge pozoitzu izugarri batek beñgoan irten, eta gajoa guzia bereala lotu, ito, puskatu eta irensten du.

Guziz maiz galdetu oi zuen, ordurako askotan esan ziotelarik, Gizonak Kondesa eta bere semea bizirik topatu dituztela egia da? Egia da, edo ez, edo ta nik ames egiñ ote det? Ez, ez, ezdet ames egiñ, egia da, eta sinisten det. Oraindik adi zazute, lastimazko boz batekiñ esaten zien: nere kastigatzalle izugarria Jaungoikoa da. Aiek ziega onetatik atera, eta nik bertan ondatu ninduen. Bai, bai, bera ementxe eserita egon zan, Golok lur otza ukabillaz joaz, esaten zuen: emen, emen ni natzan sotar-gañ onetan: eta, orañ sinistuko ez dezute Jaungoikoa justu eta zuzena dala? Beste batzuetan deadar egiten zuen: Jaungoikoari eskerrak beñ edo beñ nere billan zatoztenean, eraman nazazute laster urka-bera; pozik noa; au esanta zutik jartzen zan. Nik kulpagabeko ama bat eta aur inozentea hill nituenez geroz, niri lepoa moztea ondo merezia det; ara nere eskuak oraindik odola dariela; begira zeñ odol kolore bizia daukaten. Begira nola

oraindik nere begietatik darizkidan iturribiak ere ezin zuritu izan dizkidaten. Beragatik, nere odolak urkaberan ixuri bear du, eta ara pozik noa Askoz naiago det borreroaren kanibetaz hilla izan, emen nere barrunbean daramazkidan tormentuak luzaroago sufritu baño.

Iñoiz atea idikitzean personen ikustearekin izutu, eta urrena farra beldurgarri bati eman, eta asten zan deadarka esanaz: Nola zatozte onara zuek? Zuek ere gutizi gaiztoak engañatu zaituztela, eta persona garbi inozenteak galdu nai izan dituzutela, egia da? Bai noski: ea onuntz, zuen esku oriek ama tristeren baten negar malkoz, edo aur gaxoren baten odolez bustiak ote dauden. Ez didazute esaten baietz? Zuen eskuak erakusteko biotzik ez dezute? Nik badakit esaten zuen; egia da; zuen eskuai malkoak eta odola darizte, nereai bezela: gaitzkilleak zerate ni bezela: atozte ona; orra or bazter batera begiratuaz esaten zien, orra or zuen lekua. Emen barrunen dauden gaitzkille oek guziok, eta bera besterik etzegoan, ni bezelakoak dira.

Orduan aur gaxoak izutu, eta negarrari ematen zitzaiozkan; eta beren amak soñekoaz arpe-

giak estaltzen zituzten. Mutill eta neskatxa gazte guziak azkenean alako lazeriara daramaten pekatuetatik libre beren biotzak gordetzeko asmo sendo eragille biziak artu zituzten. Obe da, esaten zuten, Jenobeba bezela sustrai eta belarrak janaz mortuan garbi izan, konzienzia galduarekin jauregi bateko atsegin-kontentuen erdian Golo bezela bizi, eta gero azken onetara etorri baño. Arrazoi daukazute, esaten zien karzela-zaia, atea isten ziardun bitartean; eta baldin gaiztoaren bizitzak mundu onetan onelako azken txarra badu, bestean askoz eta pare gabe gaiztoagoa izango du noski. Egoera izugarri artan bizi izan zan urte askotan Golo, eta bere heriotza ohea izan zan eztakigu. Geroztik arik eta azkenean ere borrarroak bizia kendu zioneraino sosegurik beñere izan ez bide zuen.

OGEIGARREN BURUA

Bukaera

Basauntzaren

gañean hitz bi

Mutill-txikiak Jenobeba, Desdichado eta Golo ikusi ondoan, basauntza ere ikusi nai oi zuten; gaurko eguneko mutillak naiko luteken bezela. Kondeak agindu zuen, basauntzari ukullu eder bat egin zegiotela. Au jauregi guzitik libre, eta bere nai-erara zebillen, eta Jenobebaren gelara egun oro joan, eta aldi luze batean bertan egon gabe irten nai ez oi zuen. Persona guziakin guziz otzan eta mantxoa zan; nori-nai eskutik jaten zion, eta jauregiko txakurrak ere ezer egiten etzioten. Mutil-txikiak abere eder onekin nai bezela jostatzen ziran, eta ogia eman, eskuaz bizkarra igortzi, eta beren amai esaten zien: Nere Jaungoikoa! abere au izan ezpalitz, gure Kondesa eta Kondetxo maiteak mortuan goseak hill-bearrak ziran. Orregatik abereri gaitzik egin bear etzaio, eranzuten zien basauntza zaitzeko

ipiñia zegoan neskatxak: baldin ezpageneuzka arean, bostortzean... egiteko idiak, esnea emateko beiak, karga erabiltzeko asto, zaldi eta mandoak... Kondesa maitea mortuan basauntz au gabe bezañ gaizki izango giñake gu ere. Soro gutxi landuko lirake, eta belar-zelairik ederrenak ezer gutxi balioko ligukee. Beragatik ez abererik gaizki tratatu; eta oek emateaz ere egin dizkigun mesedeak-gatik Jainkoari eskerrak diozkagun.

Jenobeba noiz arteraño, bizi izan zan, seguru ez dakigu; baña gauza jakiña da, arrezkero bere bizi guzian guziz naierara eta kontentuz bizi izan zala: on andiak eta asko egiñ zituela, eta bere heriotza guzizkoa izan zala. Geroztik bere bizi guzia neguko ekaitz gogorak igaro ondoan, datorren udaberriko arratsalde eder baten gisakoa izan zan; eta bere heriotza berriz bazter guzietara bere argitasun eta ondasunak zabaldua, itzali gabe, eta beste munduan oraindik ederrago agertzeko ezkututzen dan eguzkiaren sarrera bezelakoa.

Beraren elizkizunetara ezin konta ala jende etorri ziran, eta guziak malko gori ugariak ixuri zituzten; baña beste iñork baño biziagoak Sigi-

fredorekin Desdichadok. Basauntz leiala Jenobebaren obi-gañean jarri, eta geiagoren geiago andik kendu etzan. Ematen zioten janariari begiratzen ere etzion, eta alaxe egon zan arik eta goiz batean obiaren gañean hillotzik topatu zute-neraño. Kondeak Jenobeba zanari arri zuri fiñezko tunba andi eder bat, bere oñean basauntza- ren itxura ipiñiaz, egin zekiola, agindu zuen. Jenobebaren erreguz orobat agindu zuen, egin zedilla mortuan ermita bat. Jenobeba egon zan leizearen eskui-aldetik ermita egin, ermit au Hil- dorfo Obispoak bedeikatu, eta jendeak Etxeko- andrearen elizaren izenaz deitzen zioten. Leizea- ren beste aldetik ermit-zaiaren etxetxea egin zuten. Ermit hura ikustera jendetza andia joan oi zan, eta ermita-zai onak an zeuden gauza guziak guziai pozik erakusten zizten. Oek ziran, egu- rrezko gurutze hura; Jenobebaren gertaerak adierazten zituzten pintura edo estanpak; bera egondako leize-zuloa, belauniko egon oi zan arria, ura ematen zion iturria... eta oek eraku- tsiaz Jenobebari gertatu zitzaion guzia kontatu, eta geroenean guziai ematen zien konsejua izan oi zan: aren ejemploari zerraikiotela.

Erri guziak Jenobeba Santa anditzat iduki
zuen, eta orañ mundu guziak ańtzakotzat honra-
tzen du. Geroago bere izeneko eliz asko eta
andiak egin dira, eta berari zaion jaieraren zińa-
lez emakume prestu askok Santa onen izena
izan dute eta orañ ere dute